

ARGIA



“DE MIGUEL” AUZIA Ustelkeria EA Jren itzalean

Olivier Peter abokatua: “Delitu politikoa jende zintzoaren delitua da”

Txus Garcia: “Tarota mespretxatzen duenak ikuspegi klasista du”

Liburu-denda independenteak: nola biziraun banatzaile monopolisten garaian

JUNTAS GELAK
ARABAKO BILTZAR Nagusia



Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Tokioko aireportuari
50 urtez aurre egin dioten
baseritar egoskor horiek

IRITZIAK

- 17 Asier Blas Mendoza
- 18 Fermin Erbiti
- 19 Endika Alabort Amundarain
Itxaro Borda
- 20 Irati Elorrieta



*Zer egin behar dute liburu denda independenteek
banatzaile monopolisten garaian?*

- 31 GORPUTZA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 44 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 49 DISKOA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
BETA FORN
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA:
ADRIAN RUIZ DE HIERRO / EFE

SAKONEAN

- 12 | Txus García: "Ez dut esanahi itxietan sinesten, ez tarotean ez bizitzan" / Danele Sarriugarte Mochales
- 22 | De Miguel Auzia: Ustelkeriak Sabin Etxearen atea jo du / Urko Apaolaza Avila
- 28 | Anfibiaok: Parkeko biztanle ezkutuat / Iñaki Sanz-Azkue
- 36 | Bizkaiko basoa kontserbazio kaxkarrean, baina atzera buelta egiteko garaiz / Amaia Lekunberri Ansola
- 38 | *Mingaina dantzari*: Gaztetxoek euskaraz gehiago egiteko kanpaldia / Onintza Irureta Azkune
- 45 | Liburu denda independenteak: Nola eutsi azken lubakian / Kepa Matxain

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOKI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Gonzalez de San Pedro,
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estibx Eizagirre,
Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz,
Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Nahia Ibarzabal,
Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus,
Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua,
Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU
ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU
ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetza: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus

350.000 esku bidean

175.000 pertsonak osatu dute Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotzen dituen 200 kilometroko bidea. Gure herriko historia hurbilean egindako mobilizaziorik jendetsuenetako bat izan da, ezbairik gabe. Ekimenak bultzada berezia eman nahi izan dio Eusko Legebiltzarrean EH Bildu eta EAJ lantzen ari diren autogobernu ponentziari. Baina, txostenak txosten, galderak atzoko bera izaten jarraitzen du: nola irabazi hitza eta erabakia Euskal Herrian, erabakitzeko eskubidea galarazi eta herritarrek jipoitzeko Kataluniara milaka lagun armatu bidali dituen estatu bat aurrean izanik? Erruz –eta odolez– saiatu dira erakusten egungo legedi espainiarraren araberako bide instituzionaletik ez dagoela erabakitzeko lekurik. Urkullu lehendakariak, giza katearen egunean bertan, adierazi du legalitatearen barruan eta Estatuarekin adostuta gauzatu behar dela eskubide hau. Eta betiere, estatus politikoari dagokionez soilik. Trenez edo pentsioez erabakitzea soldateko politikari profesionalen ardura omen. Bulego edo jatetxeetako lau hormen artean herritarren izenean erabakitzeaz ohituta daudenen jarrera inoiz baino argiagoa da. Zalantza da, gu, herritarrok, hesi hori gainditzeko zer egiteko eta arriskatzeko prest gauden.

Argazkia: Dani Blanco - Testua: Axier Lopez





Bi euskal herritar Espainiako Gobernu berrian: Isabel Celaá Hezkuntza ministro eta Fernando Grande-Marlaska Barne ministro.



“Borrell Atzerri ministro eta Marlaska, bi alditan atxilotu ninduen, Barne ministro. Mezua jasota”

Arnaldo Otegi, Sánchezi



“Europako Giza Eskubideen Auzitegiak ikerturiko 9 tortura kasuetatik 6tan, Marlaska zen epaile instruktorea”

@negukobaratza



“González 1982. Poza frankismoaren aurka, GALEkin etsipena. Zapatero 2004. Poza murrizketen aurka, 135. artikularen etsipena. Sánchez 2018. Errepresioaren aurka poza, etsipena Marlaskarekin. 78ko Erregimena”

@AnibalGarzon



“Kezkatzen nau inguruko ‘aurrerakoiek’ esateak Celaák euskal hezkuntzan hobekuntzak egin zituela/egingo dituela”

Ikoitz Arrese



Eskandalua Osakidetzako oposizioetan

Argia

LAB, ESK, ELA eta CCOO sindikatuek fiskaltzara jo dute, Osakidetzako oposizioetan izandako irregulartasunak ikertu ditzatela eskatzeko. Zenbait medikuri oposizioetako azterketak alde aurretik pasa zizkietela pentsatzeko motibo asko daude, ezohiko emaitzak ikusita. Azterketa ia perfektuak egin dituztenen kopuruak bat egiten du eskainitako plaza publikoenarekin; eta azterketetako galderen zailtasuna kontuan izanda, susmoak eragin ditu horrek.

Angel Loma-Osorio, Arabako Unibertsitate Ospitaleko kardiologoa izan da lehena dimisioa aurkezten, irregulartasunak antzeman dituelako.

Osakidetzak oposizioak geldiarazi ditu lau espezialitatetan, baina susmopean dauden 13 arloetan gelditzeko eskatu dute sindikatu

eta alderdi politikoek. EAJri gogor mintzatu zaizkio oposizioeko alderdiak. “EAJk argitu behar du orain filtrazioak egon ote diren, oposizioetan iruzurra dagoen, faboritismoa dagoen eta azterketak eta lanpostuak lagunen artean banatzen diren, oso kezagarriak direlako ateratzen ari diren mezuak, esanez hau ohiko praktika izan dela Osakidetzan, urteetan eta urteetan horrela egin direla gauzak”, adierazi du, adibidez, Rebeka Ubera EH Bilduko legebiltzarkideak.

Gardentasun falta

ELAk “Osakidetzako zuzendaritzaren jarrera konplizea” salatu du: “Ez dauka gertatu dena argitzeko inolako borondaterik. Horren adierazgarri, Osakidetzaren webgunean ikusgai zeuden EPEari buruzko datu guztiak hemendik aurrera ez direla publikoak izango erabaki izana; soilik gako eta pasahitzarekin ikusi ahal izango dira”.

“DSBE erreformatzeko EAJ eta PSeren lege-proposamenak pobrezia areagotuko du”

BEATRIZ URIARTE ETA IOSU BALMAEDA, ARGILAN-ESK-KO KIDEAK

“60.000 pertsona pobrezian erortzeko arriskuan daude eta ez dute DSBE kobratzen EAEn; eta beste 63.000k, DSBE jaso arren, pobreak izaten jarraitzen dute. Lanbidearen kudeaketa desegokia erabateko indefentsio egoeratan gauzatzen da, bizi-prekariatatean, muturreko estres batean, irain sakoneko bi- zipenetan. Pobreziaarekin amaituko duen DSBE bat aldarrikatzen dugu. Oinarritzeko Errenta indibiduala eta unibertsala, eta zenbateko nahikoduna behin-betiko soluzio eragingarria litzateke”. **2018-06-05**



FAUNA PUBLIKOA

**"Hemendik aurrera
Italia ezetz esaten hasi da
gizakien trafikoari,
ezetz esaten legez kontrako
immigrazioaren negozioari"**

**Matteo Salvini,
Italiako Barne ministroa (Twitter)**

Perfumerik gabe



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Ezezko bakoitzak gordetzen omen du baiezkoren bat eta Salviniaren uko publiko hauek ere, badaukate atzean zerbaiten alde egiteko intentzioa. Italiako Barne ministro berriaren jarrera Giorgio Armaniren perfume bat iragartzeko eslogana izan liteke: *"Sì alla forza, sì ai sogni, sì a me stessa"*... baina batez ere: *"Sì al fascismo"*.

Erabakia perfumatzeke lanik hartu gabe, joan den larunbatean Mediterraneoan erreskatatu zituzten 629 lagun Italian sartzea debekatu die Lega Nordeko ministroak "doazela Maltara!" esanez; eta adi kontua nondik enfokatu duen: gizakien trafikoa, immigrazioaren negozioa. Mugak kontrolatzeko milioika eurotako negozioirik ez balego bezala.

Italia ez da, bistan denez, errefuxiatu krisi globalaren erdian are gehiago gotortzen ari den estatu bakarra: gogoratu antzeko usaina duten gertakariak Espainia hegoaldean, 2014ko Tarajalgo hildakoak adibidez -15 gorpu atera zituzten uretatik muga igeri pasa nahian ari zirenean Guardia Zibilak tirokatuta; benetako biktima-kopurua ez da, segur aski, inoiz ezagutuko-.

Baina Salviniaren deklarazio honek koska bat harago eraman du problema, migrazio-politika kriminalei erantsi dielako diskurtso bat, dagoeneko ez daukana aitzakia-lurrik, ez erruki tantarik, ezta itsasoan hiltzeko arriskuan daudenenganako begiramen txikiarik ere.

Baina urteak dira mota horretako politiken kiratsa sumatzen dugula, pentsatuko du batek baino gehiagok; zer axola du nola zuritzen diren erabaki horiek? Ba badu: agintari batek kolektibo oso baten kontra mota honetako neurriak iragartzen dituenean, zentraltasun handia ematen baitie gizarte batean egon daitezkeen instintu ilunenei. Estolda horietatik ez da fragantzia onik aterako. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



**BIZKOR! EKARRAK
AUTONOMIA ESTATUTU
BERRIA!**

**MUGI
HADI!**



ANALISIA



Ez deitu borroka sektorialak, oinarriak dira



Lander Arbelaiz Mitxelena

@larbelaitz

ARGAZKIA: BIZITZA DA HANDIENA

Nola borrokatu abiadura izugarrian eta inongo konplexurik gabe, Bruselatik hasi eta gure herrietaraino ezartzen ari diren politika neoliberalak? Nola geratu herritarren txirotzea, eskubideen etengabea murrizketak, gure bizitzaren espektakularizazioa? EAJk, PSOEek eta PPK, hemengo eta hango oligarkiarekin bat eginda, disidentzia politikoa inoiz baino kontrolatuago dutela irudikatzen duten egunotan, erronka handia dute egoerarekin ados ez dauden herritarrek. Nola gerarazi denaren gainetik pasatzen ari diren arrabola pisutsua?

Legeak, poliziak, epaileak, bankuak, he-dabide publiko eta pribatu nagusiak... boterearen tresna guztiak eskura dituenari aurre egitea ez da erraza. Isunek, kolpeek, estigmek, kartzelak beldurra sortzen dute, nola ez. Baina horren aurrean zer? Nola aldarrikatu errebelia, nola biderkatu borrokarako grina hamarkada luzez sufrimenduak eta errepresioak kolpatutako herri honetan? Nola ireki agertoki berriak Euskal Herriko politikagintzan?

Pistaren bat eman lezakete Urkullu lehendakariak *El Diario Vascon* orain bi urte egindako adierazpenek: "Ardurarik gabeko mugimendu sozialek Katalunia baldintzatzeak asaldutzen nau".

Proiektuen konfrontazioa beharrezkoa dela erabaki dutenen artean, borroka molde ez-biolentoen inguruko esperientziazioa etengabea izaten ari

da. Izan atxiloketen aurkako herri harrisiak, fabrika hutsen okupazioa, greba feministak, makro-proiektuen aurkako kanpaldiak, etxe kaleratzeen aurkako mugimendu desobedienteak, informazio kanal propioen sustatzea, injustu gisa hartzen diren legeen urraketa kolektiboak, langile borroka praktikan jartzeak, pentsio duinen aldeko mobilizazio etengabeak, erabakitze eskubidearen aldeko giza kate jendetsuak... Kalea bizirik dago ikusi nahi duenarentzat.

Herri mugimenduek nola eman dezakete eraginkortasunean jauzi kualitatibo bat? Sistema kapitalista honetan ia denak etengabe logika bera elikatzen duen gisan, sistema neoliberalari aurre egiten ari den trintxera bakoitzak nola elika dezake elkar? Nola joan indarrak bateratzen, agendak partekatzen, kontrapuntuak eraikitzen? Nola ulertu feminismoa, euskaltzaleasuna, ekologismoa, langile borroka eta abar luze bat ez direla "borroka sektorialak" edo ertzak, baizik eta borroken artean hierarkizaziozko inartu ezin duen proiektu komun baten oinarriak?

Orain gutxi norabide horretan egin nahi izan du ekarpena *Bizitza Da Handia* dinamikak, borroka sozialen astea aurrera eramanez. Dozenaka eta dozenaka eragile, bakoiza beretik, eredu hegemonikoari aurre kalean egiten aritu dira. Sindikatu eta herri mugimenduak elkarren ondoan, sinergiak sortzeko prest.

Izan ere, Marina Garcesek orain gutxi ARGIAz zioen gisan: "Borroka konkretu bakoitzean gutzia dago jokoan".

EKONOMIAREN TALAIAN

Hitz emandakoa konplitu dezatela



Juan Mari Arregi

Pedro Sánchez Espainiako Gobernuako presidente berriak bere ibilaldia hasi du Mariano Rajoyk ezarritako Estatuko Aurrekontu Orokorrek lotuta. Uda ondorenean, baina, 2019koak aurkeztu beharko ditu. Horregatik, komeni da duela hilabete aurkeztu zituen plan alternatiboak gogoraraztea, gastu sozial eta zerga gehiagoko Estatua batean oinarrituak.

Gastu publikoa 8.000 milioi eurotan handituko dute egitura produktiboa modernizatu eta hazkunde ekonomikoaren etekinak hobeto banatzeko. Beste 5.500 milioi euro bideratu nahi dituzte krisiak eragindakoentzako. 2.400 milioi pobrezia borrokatzeko planerako eta 1.200 milioi epe luzean langabezian daudenak babesteko. Gastu sozialaren gehikuntza hori ordaintzeko, sozialisten plana zergak igotzea da, neurri berean. Multinazionaleri eragingo lieke gehien, Sozietateen Zerga igo eta 4.000 milioi euroekin. Bankuei ere zerga jarriko liekete eta horren bidez beste 1.000 milioi euro lortuko lituzkete pentsio publikoak ordaintzeko. Urtean 150.000 euro baino gehiago irabazten dutenek PFEZe an ere igoera nabaritu luke. Horrez gain, bikoiztutako egiturak ezabatuz eta hornigaiaren erosketetan hobekuntzak eginez 2.500 milioi euro aurreztuko lituzke gobernu berriak.

Beraz, konplitu dezatela orain hitz emandakoa. Espainiako presidente berriak ez du erraz izango. Ez soilik oposizio politikoa gatik –batez ere mendeko gosez dabilen PPren partetik–, enpresek, multinazionalen eta bankuek jadanik erreakzionatu dute. Ez dute erreforma laborala eta antzekoak bertan behera uzterik nahi, euren interesei onura besterik ez baitie ekarri. Ez dute zerga gehiago nahi. Zentsura mozioa babestu zuten alderdiek, salbuespenenak salbuespen, seguru enik plan alternatibo horiek onartuko lituzkete. Baita, jakina, Espainiako Estatuko herritarren gehiengoak ere.



MIXEL-THICOPE.INFO

Manex Pagola hil da

BAIONA. Manex Pagola kantari eta idazle baxenabartarra hil da Baionan, 76 urte zituelarik. Besteak beste, *Zazpiribai* ikuskizunaren bultzagilea izan zen Ipar Euskal Herrian, Ez Dok Amairu taldearen *Baga Biga Higa* ikuskizunaren arrakasta eza-gutu ondoren. Besteak beste, Pantxo Carrere eta Peio Ospital, Ugutz Robles-Arangiz, Iñaki Urtizberea, Patxika Erramuzpe, Benito Lertxundi, Xabier Lete eta Lourdes Iriondo aritu ziren *Zazpiribai* emanaldiaren inguruan. Politikan eta herrigintzan ere aritu zen luzaz. 1968tik 1972ra bitartean Enbata mugimenduko kidea izan zen, Seaska elkartearen sorreran parte hartu zuen eta Iparaldeko Eusko Alkartasuna alderdiko idazkari nagusia izan zen.



HONDAKINAK

Errausketa baztertzan duen Hondakinen Legea onartu du Nafarroako Legebiltzarrak. Ekainaren 7an onartu du Hondakinen eta haien Fiskaltatearen Legea, Nafarroako 2017-2027 Hondakinen Plana osatu eta garatzera datorrena.



BIDEO SEXUALA

Eibarko futbolariak grabatu eta hedatutako sexu edukidun bideoaren gaineko auzia aurrera doa. Sergi Enrich, Antonio Luna eta Eddy Silvestre dira auzipetutako futbolariak. Enrich eta Lunari bideoa grabatu eta zabaltzea leporatzen diete, Silvestreri, hedatzea.



78KO SANFERMINAK

78ko Iruñeko sanferminetako gertaerak ikertzen aritu den lan taldeak ondorioak aurkeztu ditu. Taldearen ustez auzia ongi ikertzea ezinbestekoa da –bere garaian ez zen egin– eta horretarako gizateriaren aurkako delitu multzoan kokatutako kereila aurkeztea proposatu dute.

2008koaren antzeko krisia errepikatzeko arriskua

Asier Gonzalez de San Pedro

@asiertxiki98

Munduko Bankuak 2008koaren antzeko krisia errepikatzeko arriskuaz ohartarazi du. AEBek hasitako inportazioen aurkako gerra komertzialak eragin ditzakeen kalteak aipatu ditu.

AEBen politika

Donald Trumpen politika ekonomiko protekzionistak arriskuan jarri dezake mundu mailako ekonomia hazkundera eta merkataritza, Munduko Bankuaren ustez. Ondorio latzenak garapen bidean dauden herrialdeek jasango lituzkete.

Datuak

Argitaratutako txostenen adierazi duenez, inportazio tarifak asko igo dira mundo osoan, Munduko Merkataritza Erakundeak jarritako maximoetaraino; eta horrek, nazioarteko salerosketen behe-rakada handia ekar dezake, %9koa.

2008koaren pare

Herrialdeak Munduko Merkataritza Erakundeak ezarritako mugetatik harago baldin badoaz, krisia 2008-2009koa baino larriagoa izango dela dio. Protekzionismoaz gain, Txinako zor altuaren arriskuez ere ohartarazi du txostenak.

SEXU-INDARKERIA



haurretatik bat sexu-indarkeriaren biktima da. Salaketak aintzat harturik, 13 urtetik beherako lau nesketatik batek eta zazpi mutiletatik batek sexu-abusuak jasan ditu noizbait, "Haurren kontrako indarkeriarik ez!" plataformak salatu duenez.

%90

Kasuen %90ean, hurbileko senideak dira erasotzaileak.

Tokioko aireportuari 50 urtez aurre egin dioten baserritar egoskor horiek



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Japonian 2020ko Olinpiar Jokoak hasterako estreinatuko ote dute Tokioko Narita aireportuaren hirugarren pista? Agintariak proiektuari ekin eta 50 urte geroago, osatu ezinik segitzen dute beren lurrari eta lanbideari uko egin nahi ez dioten baserritarren erresistentzia dela medio. Jasandako presioengatik edo diru beharragatik amore eman badute gehienek, bakan batzuek eusten diete baratzeei bizirik. Hegazkinez inguratuta aitzurrean, erresilientzian maisu.

Historiak ez du errukirik *mainstream* uhinak aparte laga dituenekin. Parisko maiatz ospetsuko istiluez edo Kaliforniako sukarraldiaz harago, 68a izan zen zerbait Japonian ere. Orduko ilintiek bizirik segitzen dute Narita aireportuaren trafiko zoroaren erdian.

Tokioko aireportura iristean hegazkinetik panoramika bitxi bat ikus dezake bidaia-ariak, ez hanka eta ez bururik gabeko bi pista baitaizkiz era bitxian kokatuak, elkarri trakets komunikatuak. Zorrotzago erreparatzen badu, baserri bakan batzuk topatuko ditu aireportuaren erdian, aireplano, pista, bide eta hesiz inguratutako baina etxalderik eman korrenak bezain txukun landuta.

Naritako baserritarrak bisitatu ditu *France Press* agentziak maiatzean. Argazki eta bideoetan frogatu daitekeenez, labore eta negutegi txikietatik metro oso gutxira aieratzen dira edo lurre-ratzen hegazkinak. Zer nolako zarata dagoen, aipatu beharrik ez.

“Denborarekin ohitu egiten zara” esan dio kazetariari Takao Shito nekazariak. Batean eta bestean barreiatuta dauzkan baratze batzuetan ilarrak, errefauak edo azenarioak erein bezala biltzera soilik pisten azpiko tuneletatik iritsi daiteke.

Baina berak dioen moduan, ez dago zure esku zure bizilagunak aukeratzea. “Lurrok gure hiru belaunaldik landu ditugu, ia mende batez, aitonak, aita eta orain neuk. Eta hemen jarraitu nahi dut, bizitzen eta nekazaritzan”. Hala izan-go da baldin eta Tokioko agintariak ez

badute lortzen azken zortzi lur jabeak kanporatzea: urtero 40 milioi bisitari mugitzen dituen Narita hirugarren pista batez hornitu nahi dute 2020ko Olinpiar Jokoak baino lehen eta gogor datozkie bultzaka baserritarrei.

Japonia modernizatzeko beroaldi batean 1966an diseinatu, lekuko baserritarrek ezkerreko mugimenduen laguntzarekin sututako borroka gogorak atzera erazi zituen obrak. 1978an inauguratu zuten hasieran diseinututako hiru pistetatik bakar batekin eta 2002a arte ez zuten agintariak lortu bigarrena gehitzea.

Aireportua zabaltzeko lurak erosi zizkieten inguruko nekazari gehienek, baina Takao Shito eta beste zazpik ez zuten onartu, Japoniak laborantzako lurra babesteko daukan legedia baliatuz. Euskal Herrian izan balitz, hilabete baino lehen desjabetuko zuketuen udalak ez bada aldundiak, Jaurilaritzak edo Madrilek. Aldiz, Tokion posible da ikustea aireportu batean pistetara iristeko bide bat bihurtzeko bitxiak egiten baratze batzuen mugak jarraituz, hesi tartean inguratzen dituelarik baserriak.

Shitok sei auzi ezberdin dauzka aireportuarekin epaitegietan. Agintariak kalte-ordainak eskaini dizkiote baina berak dienez “dirua ez da dena. Nik nekazaritza ekologikoa egiten dut, pestizidarik gabea. Ezin duzu pentsatu lur horren gaineko geruza hartuta beste norabait eramane eta han berdin emango dizunik”.



Tirabirak egunero dauzka aireportuarekin. Goardekin bezala beti handik da biltzan poliziek izan du enkontrurik. Behin eta berriro geldiarazi eta nortasun agiria eskatzen diote, nahiz eta oso ondo ezagutzen duten. Baina ez dela bertatik mugituko dio Shitok, kontent bizi dela bere 400 bazkideei barazkiak zerbitzen. “Hau da nire bizia. Maite dut barazkiak ekoiztea hemen, lur honetan, zaporea ere ezberdina daukate”.

68 japoniarraren arrastoak

Bezero eta hornitzaileez gain bestelako bisitariak ere izaten ditu Takao Shitok, bere borrokan alde dauzkanak. Kazetariak topatu du Nobuharu Ito, 71 urteko gizona, unibertsitate garaian Naritako borroketan ibilia eta berriketan azken baserritarren erresistentziaz entzun ostean berriro mobilizatu dena: “Shitoren bizimodua, nola ez duen dirua jartzen edozeren gainetik... iruditzen zait honek jendeok hunkitzen gaituela inoiz baino gehiago”.

Nobuharu Ito unibertsitatean zebile-nean, 1960ko hamarkadan, gobernuak eremu bat baino gehiago aztertu zituen Tokiok behar zuen aireportua eraikitze-ko, baina udal guztiek banan-bana beren ukoa emanik, azkenean Narita hautatu zuten, zehazki Sanrizuka inguruan.

Naritak, ustez, abantaila bat bazuen: Sanrizukako lur gehienak estatuarenak izaki, II. Mundu Gerrak miserian utzitako jende txiroari alokairuan utzita zeuden eta gobernuak espero zuen maiz-



'Japan Times' egunkariaren argazkian –hegazkinetik hartua– Takao Shitoren etxaldea, Naritako aireportuaren bihotzean handitu ezin den baina suntsitzea lortu ez duten tumore baten moduan itsatsita. Goiko aldean ageri den pista osatu ahal izateko justu Shitoren lurren beste aldera luzatu behar izan zuten. Hegazkinak bertara eramaten dituen pasabidearen beste aldean ikusten dira oraindik amore eman ez duten beste etxaldeak ere.

terrok erraz konformatzea. Baina lur propiorik gabeko nekazari txiroek bat egin zuten beren soroak saldu nahi ez zituzten lur jabe txikiekin.

Naritako aireportuko gatazka azaltzen duen *Wages of Resistance* [Erresistentzia uhinak] dokumentalean kontatuta dago nola maizter txiroek haserre hartu zuten inolako azalpenik gabe gobernuak esatea “utzi nizun lur hori itzuli behar didazu berriz”. Beren bizimodua, oso txiroa izanda ere, urteetan lortutako guztia galtzeko beldurrez agintariekin kolaboratzeari uko egin zioten.

Polizia hasi zenean gogorago hartzen beren lurrak defenditzen zituzten gizon eta emakumeak, ezker erradikaleko talde asko hurbildu zitzaizkien, tartean unibertsitateetako ikasleak. William Andrewsek idatzi zuen *“Japanese radicalism and counterculture”* blogean:

“Munduko garai hartako beste gazte askok bezala, beren gurasoek kapitalismoaren eta inperialismoaren morrontza onartzen zutela uste zuten gazte japoniarrek erreakzionatzeko aukera ikusi zuten Sanrizukako gatazkan. Hala gertatu ziren Japoniako aktibismoaren protestarik bortitzenak. Sei pertsona gertatu ziren hilik eta ehunka zauritu eta atxiloturik”.

Gaurko begiekin erreparatuta, Naritan bezala Tokioko kaleetan manifestarien eta poliziaren arteko istiluen irudiak harrigarri suertatzen dira beren gogorrean. Kronika honen interneteko bertsioetik ikus daitezkeen bideoek –1960ko hamarkadakoa bata, 1985ekoa bestea– erakusten duten borrokaren gordintasuna izugarria da.

Baina baserritar sorta batek eta ezker muturreko militanteek estatuari

aurrez aurre egindako desafioak ezin zuen irabazi. Atxilotetak, nekea, eskaintza ekonomikoak... mobilizazioak ahultzen joan ziren eta nekazariak lurrrak saltzen. Ez denak ordea: oraindik 2018an Naritak bere soin osatu gabean krater, pikorta edo garatxo moduan erakusten dituen etxaldeetan kimikarik gabeko barazkiak ekoizten dituzte.

Aukerarik uzten badiote, Shitok jarraitu nahi du Naritako aireportuaren aldamenean bizitzen. “Gobernuak zerbait egin edo esaten duenean, jende gehienek ontzat ematen dute galdera gehiegirik gabe. Baina gobernuak kontutan eduki beharko lituzke hemen bizi diren jendeak ere. Nahi nuke munduko jendeek jakin dezaten leku honetan badela baserritar bat. Jendeak jakin beharko luke”. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Ez dut esanahi itxietan sinesten, ez tarotean ez bizitzan»

Txus García
Andre arraroa

Kontrakotzat jo ohi diren gauza asko uztartzen ditu Txus García rapsoda eta poeta *queer*-ak: patxadaz mintzo da, eta pasioz. Umorez erantzuten die galderei, eta sakontasunez. Umiltasunez dihardu, eta lotsarik gabe. Eta badu halako eragin bat entzuten ari zaionarengan: kazetari perfektionistak, behinik behin, harekin hizketan hasi orduko ahaztu du urduri zegoela.

Testua: Danele Sarriugarte Mochales

Argazkiak: Marisol Ramirez / Foku

Rapsoda zarela diozu. Zer dela-eta?

Rapsodatzat dut nire burua, poeta-tzat edo beste edozein gauzatzat baino lehen, zeren urte asko daramatzat testuak ozen irakurtzen, eta niretzat hori da rapsodia, testuak irakurtzea halako moduan non zuzenean iritsiko baitzaizkio jendeari. Trobadoreen iturritik edaten dut: trobadoreak plazara ateratzen ziren eta askotariko jendea topatzen zuten hantxe –ez zen publiko literarioa–, eta mezu bat helarazten zuten modu atseginean, umorea erabiliz.

Idaztearen eta jendaurrean irakurtzearen artean bada alde bat: gorputza. Zuk hor-txe ipintzen duzu, agerian.

Gorputzaren iragazkia oso garrantzitsua da niretzat, asko baliatzen ditut aurpegiko keinuak eta asko mugitzen naiz. Iruditzen zait, hala askoz modu po-

tenteagoan iristen dela mezua. Saiatzen naiz hitza gorpuzten, oihartzun bihurtzen eta bibrazio hori jendeari iritsarazten. Apur bat mistikoa dirudi baina errezitatzen ari naizenean arreta asko ematen diot jendearen energiari, gertatzen diren gauzei: landu egiten ditut, eta txertatu. Errezitatzean ez naiz hutsean irakurtzen ari, aktiboki aditzen baizik.

Eta ahotsa?

Diotenez, onarpen-ariketa handia da norbere ahotsa kanpotik entzun eta gustuko izatea. Norbere burua zenbat eta landuago, orduan eta hobeto onartzen omen dugu gure ahotsa. Nik neuk bide bat egin dut ahotsarekin. Ahots berezi samarra daukat. Gorputz handi hau daukadanez, jendeak pentsatzen du halako ahots izugarri bat izango dudala, sakona, baina ez da hala. Bitasunarekin

Txus García

Tarragona (Katalunia), 1974

Ogibidez, hezitzaile sozio-kulturala; pasioz, komunikatzailea eta rapsoda. Hogei urtetik gora egin du jendaurrean testuak irakurtzen eta performanceak egiten, eta bi poema liburu argitaratu ditu: *Poesía para niñas bien* (Cangrejo Pistolero Ediciones, 2011) eta *Este torcido amor* (Edicions Bellaterra, 2018). Denbora librean, gainera, tarot-saioak egiten ditu. Bere webgunea: txusgarcia.com

jolasten dut hor ere. Ondo gogoan daukat, 12 urte nituela, amak ogia eroatera bidali ninduela. Oso lotsatia naiz, eta garai hartan ahots are finagoa neukan. Erreparo handiz eskatu nuen ogia eta



han zeuden tipo batzuek ederki egin zuten barre nire lepotik. Irrigarri sentitu nintzen, umiliaturik, eta oso-oso gaizki. Erabaki nuen ez nuela sekula gehiago jendaurrean hitz egingo. Harik eta egun batean pentsatu nuen arte baietz, hasiko nintzela jendaurrean hitz egiten, etxean ozen irakurtzen nuen moduan, eta ordutik ibili naiz nire ahotsa lantzen, maitatzen, mimoak egiten... Uste dut gauza asko egin dezakedala ahotsarekin. Lanabes bat da, balio dit jendea hunkitzeko, jendeari barre edo negar eginarazteko, eta gaur egun nire auto-estimuairen parte handi bat da.

Zure bigarren poema liburua aurkezten zabilta, eta hala deitu diozu aurkezpen birari: “Ama, begira zelako andre arraroa!”. Kanpotik esandakoa zeureganatu duzu?

Bide bat izan da. Hasieran, herriko *bolllera* nintzen, edo, hobeto esanda, herriko *tortillera*. Joan naiz termino horiek neure egiten, zeren dibertigarria da eta babes eta mezu gisa balio dizute. Ondoren, hazi nintzen eta *queer*-aren zera hori iritsi zen, eta orduan *queer* nintzen, zeren *guaiagoa* zen eta ni neu nahiko ondo moldatzen bainaiz *queertasunarekin*, esentzia edo ideia gisa. Baina orain zahartu egin naiz, 44 urte ditut, eta hara, *queer* izatea ez datorkit hain ondo, jadanik ezin dut ilea edozein gisatan moztu [barreak].

Eta zuretzat zer da *queer* esentzia hori?

Niretzat *queer* da bizitzan nahi duzun hori egin eta horretaz gozatzeko erabaki pertsonala. Erabateko zoriontasuna bilatzea hala forman nola edukian, eta guztiz eta funtsean zu zeu izatea denbora guztian, zure bitxikeria guztiekin. Horregatik, eta aurreko galderari tiraka, orain, zahartu naizen honetan, andre arraro bat naiz: ez haragi, ez arrain, ez guztiz kontrakoa; maskulinoa, femeninoa, edo biak batera. Gaur, andre arraroaren etiketa hori sentitzen dut gertuen. Bihar, auskalo.

Aurrekoa baino intimoagoa omen da bigarren poema sorta.

Orain dela zazpi urte idatzi nuen lehen liburua, eta beti esaten dudan moduan, bizitza zazpi urteko zikloz osaturik dago. Zazpi urteotan gauza potente asko gertatu zaizkit: bi aldiz ezkondu naiz, eta birritan banatu, krisiak zuzenean



eragin dit, bankuak etxea kendu zidan, lanik gabe geratu nintzen, kanean, jendeak hartu nau... Horrek guztiak eragin dio bigarren liburu honi. Baina liburuak ez zaitu lur jota uzten, nik beti sartzen dut umore-izpi bat, kontrapuntu bat. Bizitzak ere halako printzak ematen baititu, emozio ilunagoetan nabigatzeko.

Arbasoak ekarri dituzu gogora hainbat poematan.

Jaso dudana omentzeko ariketa egin dut. Bat-batean uzten diozu izan zaren eta eman dizuten horrekin guztiarekin borrokatzeari, konturatzen zara ari zarela amaren edo aitaren jarrerak hartzen. Eta orduan erabakitzen duzu horri ukorik ez egitea, hori txertatzea zugar eta eskerrak ematea, zeren badaude gauza batzuk oinordean hartu ditugunak, erabilgarriak eta onak eta praktikoa, nahiz eta muzin egiten diegun, batez ere gazteagoak garenean. Beraz hori egin dut, halako zuhaitz genealogiko bat, baina poemen bitartez, eta azkenean gurasoak askatu ditut erantzukizun guztiaz. Zama bat daukat, ez dudana nirekin eraman nahi, eta hor utzi dut, dagoen tokian; baina nire bizitza nigan-dik hasten da. Eta balio izan dit gauza positiboak berreskuratzeko.

Zer berreskuratu duzu?

Bada, batez ere, bizitzeko eta miseriatik ihes egiteko borondatea eta gogo. Nire familian ez da izan bankaririk edo bulegaririk: lurreko eta itsasoko jendea izan dira denak, langileak. Are, neu izan naiz unibertsitatera joan den lehena. Badakit zer den lan egitea eta sufritzea, ezagutzen dut bizitzako miseria, eta horregatik nago eskertuta, arbasoek tresnak eman dizkidatelako lurrari eta gizatasunari loturik jarraitzeko.

Idatzi eta performatzeaz gainera, tarotologoa zara. Betiko aurreiritzietatik aparte tarota apenas ezagutzen duen batekin ari zara hizketan. Zer da tarota?

Tarota dira paper txiki batzuk, marrazki txiki batzuekin. Eta kito. Kasu honetan, karta-sorta bat da. Nik Marseillako tarota erabiltzen dut, jatorrizkoa, sinpleena. Erdi Arotik dator eta garai horretako iruditegia baliatzen du. 22 karta ditu, eta karta bakoitzak badu bere esanahia, hala ere, nik ez dut esanahi itxietan sinesten, ez tarotean ez bizitzan, beraz aurrean daukadan pertsonaren arabere-

rakoa izaten da. Labur esanda, tarota tresna bat da.

Zertarako balio du?

Tarot-saioetan kafe bat hartzen dut nigana jo duen horrekin. Beraz, elkarriketa bat da, eta nik tarota erabiltzen dut pertsona hori bizitzen ari dena argitzeko. Ez naiz igarlea, ez mediuma ez halako ezer. Nik lagun egiten diot pertsona horri bere prozesuan. Batzuetan badira korapiloak gure bizitzan, eta nik laguntzen diot pertsona horri hariari tira egin diezaion, batzuetan zaila baita gauzak ikustea norbera barruan dagoenean. Ni kanpoan kokatzen naiz, tresna batekin, eta tresna horri esker, ez dakit zehazki nola, eta ez zait axola, baina tresna horri esker pertsonak bat-batean argi asko ikusten ditu gauzak. Nik ez dut ezer epaitzen eta ez dut inongo aholkurik ematen.

» “Zazpi urteotan gauza potente asko gertatu zaizkit: bi aldiz ezkondu naiz, eta birritan banatu, bankuak etxea kendu zidan, lanik gabe geratu nintzen, kanean, jendeak hartu nau...”

Demagun banoala zuregana tarota egi-tera. Zer egin behar dut, nire egoera azaldu?

Ez, ez zait interesatzen zuk zure ikuspuntua kontatzea, ez datu asko ematea ere. Galdera zehatz bat egin behar didazu. Oso garrantzitsua da hori: galdera pentsatu behar duzunez, arazoa zertan datzan zehaztuko duzu, eta hori oso lagungarria da. Galdera egin ostean, hiru karta botako dizkizut. Begiratu-kotu ditut kartak, begiratu-kotu dizut zuri, eta hizketan hasiko naiz, baina aktiboki entzunez. Hiru karta horiek halako historia bat osatuko dute, eta ni kontalaria naizenez, bada hiru marrazki horiekin harilkatuko dut kontakizun bat, eta ez dakit nola, baina kontu interesgarriak aterako dira eta zuk argi ikusiko dituzu zenbait gauza. Nirekin tarota egiten dutenak zoriontsu ateratzen dira beti saiotik, eta etxeko lanekin.

Salatu duzu patriarkatuaren eragina sumatzen dela tarotean ere.

Gizarteak, oro har, badu halako premia bat jendea sailkatzeko eta etiketak ipintzeko, eta horrek denak ez dio inolako mesederik egiten igartzeko arteei. Igartzeko arteak oso zaharrak dira, gizakiok bezainbeste. Izan ere gizakiok ezin izan dugu sekula bizi soilik genekiena jakinda, beti nahi izan dugu ikertu eta gehiago jakin, aurrea hartu gertatuko zitzaizkigun gauzei, beldurragatik. Biblian bertan etengabe agertzen da hori. Kontua zer da, bada pertsona askok etekina atera diotela gizakion premia eta beldur horri, eta guztiz hutsaldu dutela igartzeko arteek izan behar luketena. Nire ikuspegitik tarota beste hori da, pertsona bati lagun egiten diozun une intimo hori: pertsona horrekin kafea hartu eta pertsona horri lagundu bere kabuz –bere kabuz!– argitu eta erabaki dezan ea zer egin nahi duen.

Orduan, heteropatriarkatuaren eraginari helduta, bi kontu daude: batetik, erabiltzaile moduan, tarota egiten dizutenean, emakumea bazara eta harreman bat agertzen bazaizu, beti ondorioztatzen dute gizonekin dituzula harremanak, aurrez ezer galdetu gabe. Hasieratik bertatik ondorioztatzen badute ez zaren zer bait zarela, nola demontre komunikatuko zarete? Bestetik, badirudi tarotologoak bi eratakoak bakarrik izan daitezkeela, bestela ez omen dira sinesgarriak: ilea harro-harro egindako emakume guztiz normatiboak edo sekulako luma daukaten marituak.

Tarot erabiltzaileen inguruan ere bada aurreiritzirik.

Tarot erabiltzaileak emakumeak dira batez ere, zeren emakumeek beti bilatu behar izan dituzte beren espazio propioak aditzeko eta adituak izateko. Eta, horretarako, tarotak espazio ederra eskaintzen du, bere garaian Elizak eskaintzen zuen moduan. Gainera, tarotean, azaldu eta aditzez gainera, jakin dezakezu zer gertatuko den, eta apai-zak ez dizu halakorik emango. Eta tarotean inork ez dizu aginduko ez dakit zenbat aitagure erreza ditzazun zure bekatuak garbitzeko. Oso toki egokia da barrenak husteko, batez ere isolaturik dauden emakumeentzat. Beraz, iruditzen zait tarota mespretxatzen duen jendeak ikuspegi klasista duela, eta ez batere errealista. Halako espa-

zioak mantendu behar dira, premiazkoak dira.

Lanbidez, hezitzailea zara.

Bai. Lau urte egin ditut Generalitat-aren proiektu batean lanean. Xarxa Omnia du izena: herritarrak interneten sartzeko doako guneak dira. Jendea joan daiteke bertara eta IKTei buruzko oinarrizko gauzak ikasi. Ni Bartzelonako Gracia auzoan nabil: horixe da Bartzelonako bertako ijitoen komunitatea biltzen duen gune nagusietako bat, eta beraz, Kataluniako Ijitoen Elkartearen Federazioak kudeatzen du nire lantokia. Haiek dira nire bigarren nagusia, nolabait esatearren, baina niretzat, haiek dira lehenak eta garrantzitsuenak, haiekin egiten baitut lan.

Zer ikasi duzu lau urteotan?

Ni hara iritsi nintzen salbatzaile baintz moduan, nire pribilegio guztiekin, eta Generalitateak aurkeztu zidan hura guztia, antolatzeiko asmoz: taillerak egin, jarduerak prestatu... Dena oso polita. Baina hara iritsi eta errealtatearekin egin nuen topo. Sekulako kolpea izan zen. Hasteko, han ez ninduen inork behar, jakina, eta ez ninduen inork nahi. Zaila izan zen. Lurrera



Azken hitza:

Sare afektiboa

Askotariko tokitan aritu da Txus García erreztatzen: autobusetan, metro-geltokietan, tabernetan... Baina zelakoa behar du toki batek, han gustura errezita dezan? "Sare afektibo bat. Zahartu ahala gero eta garrantzi handiagoa ematen diot horri. Behar dut euskarri bat eta maitasun polita emango didaten pertsonak. Haiek nahi izatea ni han egon nadin. Garrantzitsua da hori, oholtza ederrak edo argi txundigarriak baino askoz garrantzitsuagoa. Filtro hori erabiltzen dut aurrena".

.....

jaitsi behar izan nuen, berriro, eta begiratu, eta aditu, eta isildu. Hori guztia oso garrantzitsua da, eta horixe egin nuen. Nire pribilegioak albo batera utzi eta hutsetik abiatu. Eta egon. Horixe da gakoa. Asko ikasi dut: nire buruaz ikasi dut, eta ari naiz ikasten erne egoten, aditzen, tokatzen ez zaidan tokietan muturrik ez sartzen, nirea ez den hizkuntzan

ez hitz egiten, haien ohiturak ez hartzen –ni ez bainaiz ijitoa–, eta beste hainbat gauza. Orain ondo nago, pozik, inguruarekin harmonian nago. Nire espazioa daukat, jendea nahieran sar eta irten daiteke, eta uste dut garaipen bat dela hori.

Alegia, norbera bezalakoa den jendearekin elkar bizitzea ez dela jende horren izaeraz jabetu nahia.

Ez horixe. Niretzat hau xe da inportantea: orain badudala zeregin bat komunitatean, erabilgarria naizela. Nire lana da atea zabalik edukitzea eta iristen zaizkidan eskaerak jaso eta erantzutea, edozein izanik ere: eskabideak bete, familia baten arazo jakin bat entzun, medikutan hitzordua eskatu... Behar adina gauza. Horixe da nire betekizuna, eta ase egiten nau, gainera. ■



Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOITIKA ALDIZKARIA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Martin Ugalde K.P. / 20140 - ANDOAIN
kluster@soziolinguistika.eus
bat.aldikaria@soziolinguistika.eus
<http://www.soziolinguistika.eus/bat>

BAT 107

EUSKALTAZETASUNAREN AKTIBAZIOA (II)



Idurre Eskisabel > Euskaraz bizitzeko diskurtsoak eta bizipenak.
Eneko Gorri > Erdaldunak aktibatzeako diskurtsoak. Mintzalasai eta BAM! maila diskurtsiboan.
Iñaki Arruti Landa > Ahobizi, belarriprest eta hizkuntzaren armairutik elkarrekin ateratzeko esperientzia bat.
Arrate Illaro Etxebarria eta Iker Martínez de Lagos Menique > Euskaraldia, ohiturak idatzeko aktibazio ariketa.
Zesar Martínez García, Amaia Balda Etxarte eta Imanol Larrea Mendizabal > Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa: hainbat gako.
Pello Jauregi, Pablo Suberbiola > Eusle metodologia: gaztelanian finkatutako hizkuntza-ohituretatik euskarazkoetara lan-munduan.
GUREAN ATALA
Eneritz Albizu Lizaso eta Goizane Arana Arexolaleiba > Bermeo eta Ondarroa, Hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak.

Serbofobia

Katalunian serbofobia modan dago unionisten eta independentisten artean. Astakerien txanda Joaquim Arrufatek ireki zuen eta oraingoz Joan Tardak itxi du. Halere, bi hauen adierazpen serbofoboak moderatuak bezala kontsideratu daitezke CUPEko zerrendetan joandako Manuel Delgadok eginikoekin alderatuta. Katedradunak agerkari digital batean esan zuen “Ciudadanos alderdi ultranazionalista bat dela joera serbiarrekoa” eta telebistan “Ciudadanos inoiz bizitzan ikusi dudana alderdi fanatiko nazionalistena da, lerro serbiarrekoa”.

Independentismo katalan hegemonikoak Serbia Espainiarekin parekatzen du, unionismoak, berriz, Herrialde Katalanak “Serbia Handia” proiektuarekin. Erkaketa horiek egitea ez da justua, baina, norbaitek asmatzen badu, horiek unionistak dira. Izan ere, Serbia ezjakintasunetik soilik erkatu daiteke Espainiarekin.

Egun Serbiako Estatu Kataluniako Errepublikak birtualak baino populazio txikiagoa du eta Herrialde Katalanek “Serbia Handiak” izango lukeen populazioa baino handiagoa dute. Historiari begiratzen badiogu, Serbiak bost mende Otomandar Inperioaren menpe egon ostean independentzia eskuratu zuen 1878an lurralde mugatu batean. Serbiar gehienak bere mugetatik kanpo bizi ziren. 1918an hego eslaviar gehienak jasoko zituen estatua jaio zen: Serbiar, Kroaziar eta Esloveniaren Erresuma (Jugoslavia).

Hegoaldeko eslaviar herrialdeen arteko bereizketa nazionalak inperioek sortu zituzten: mendebaldekoen menpeko katolikoak (kroaziarrek) eta ekialdeko ortodoxoak (serbiarrek); hizkuntza aldetik berriz, denek serbokroazieraz hitz egiten dute, esloveniarrak eta mazedoniarrek salbu. Lehenengoen hizkuntza serbokroazieraren oso ger-



Asier Blas Mendoza

EHU-KO IRAKASLEA
@AxiBM

Independentismo katalan hegemonikoak Serbia Espainiarekin parekatzen du, unionismoak, berriz, Herrialde Katalanak “Serbia Handia” proiektuarekin. Erkaketa horiek egitea ez da justua, baina, norbaitek asmatzen badu, horiek unionistak dira. Izan ere, Serbia ezjakintasunetik soilik erkatu daiteke Espainiarekin

tukoa da eta bigarrenena bulgarieraren forma bat da.

Bosnia-Herzegovinan, Ekialdeko eta Mendebaldeko inperioen arteko mugan, gehiengo ortodoxoa zen (bosniar serbiarrek) eta gutxiengoa katolikoa (bosniar kroaziarrek). Horrez gain, inbasio otomandarraren ondorioz bosniar otomandar nortasuna sortu zen erlijio musulmanari lotuta. Istanbulen musulmanentzat abantailak ematen zituenek, herritar asko, zergak saihesteko, dendak ireki ahal izateko edota tokiko administrazioan lan egin ahal

izateko musulman erlijiora bihurtu ziren. Nekazal guneetan ordea, gutxiagotutako nazioetan gertatu ohi izan den moduan, oso gutxi hartu zuten erlijio musulmana, ordura arteko nortasun serbiarra edo kroaziarra mantenduz.

I. Mundu Gerran bere populazioaren hildako portzentaje handiena izan zuen herrialdea Serbia izan zen, %16,7. Halere, II. Mundu Gerraren aurretik, Bosnia-Herzegovinan populazioaren gehiengo ortodoxoa zen. Gerra ostean, 1948, 1953 eta 1961eko erroldetan, populazioaren %44,3, %44,3 eta %42,9rekin, serbiarrek jarraitu zuten talde etniko nazional handiena izaten. Baina, II. Mundu Gerran pairatutako sarraskiaren ondorioz, 1971tik aurrera bigarrenak izatera pasa ziren musulmanen atzetik.

Kroaziako eta Bosniako ehunka milaka serbiar erail zituzten naziek eta beraien kolaboratzaile kroaziarrek eta musulman eslaviarrek. Hain zuzen ere, nazien kolaboratzailea eta 1970eko hamarkadan xaria gida bezala izango zuen estatu islamista proposatu zuen Alija Izetbegović izan zen Bosnia-Herzegovinako lehen presidentea. Honek hil aurretik esan zion bere semeari, egungo Bosniako hiruko presidentzian musulmanak ordezkatzeko dituenari, Erdogan esateko Bosnia-Herzegovina uzten ziola ondare bezala. Semea oraindik urrunago joan da eta 2018ko martxoan Sarajevon Erdoganekin izandako bilera ostean esan zuen jaungoikoak Erdogan bidali duela Turkiara misio berezi batekin. Ordu batzuk beranduago Bosniako hiriburuan Erdonaganek mitin batean parte hartu zuen Europatik etorritako milaka turkiarrek eta bosniar musulmanekin. Legatu eta misioa Otomandar neoinperio bat sortzea da. Hobe luke Delgadok Tabarniako eredu musulman bosniarretan bilatzea eta ez Bosniako serbiarretan. ■

Politikaren amildegia

Politika ez da ordoki goxoa, bide malkartsua baizik. Politikariek, eta bereziki agintariek, ongi dakite ofizioak ez duela zer ikusirik zientzia zehatzekin. Politikakoak kontu korapilatsuak izateaz gain, jende askori eragiten diote, bakoitzari modu differentean. Erabakiak hartzerakoan, beraz, ez da erraza etekin eta kalte politikoen inguruko hausnarketan asmatzea. Kalkulu, arau edo iraganeko lezioek ere gutxi balio dute, ziurgabetasunaren eremuan mugitzen baikara. Politikaria amildegia- ren aitzinean ausardiaz ibiltzen dakien apustuzalea da. Hori horrela izanik, jakina, kontu bat gogoratzea komeni zaio: zeruetarainoko zein zulo beltzerainoko bidaia di-da batean egin daiteke.

Horren jakitun dira Pedro Sanchez eta Mariano Rajoy. Inork espero ez zuenean, Sanchez kementsuak, porrote- tik behin baino gehiagotan berpiztuak, presidentzia lortu zuen. Egun berean, EAJri esker aurrekontua onartzearekin egonkortasuna ustez eskuratua zuen Mariano, zapla!, zulora erori zen.

Argi dago Sanchezena ez dela ordoki zabalean ibiliko, harriz beteriko bidexkan baizik. Eta oinen azpian, noski, amildegia izanen du. Espainia- tik egonkortasuna aldarrikatu bai, aise egiten dute. Bi alderdi nagusiren garaia



Fermin Erbiti

KAZETARIA

Sanchez ez da ordoki zabalean ibiliko, harriz beteriko bidexkan baizik. Oinen azpian amildegia izanen du. Bi alderdi nagusiren garaia desagertu zenetik Madrilen ez dago mapa politiko anitzagoa kudeatzeko modurik

desagertu zenetik, ordea, Madrilen ez dago mapa politiko anitzagoa kudeatzeko modurik. Iruñean eta Gasteizen ezberdina da egoera, eta handiagoa diferenteen artean hitzartzeko ahalmena. Errealitateak beharturik, seguru asko. Nafarroara aldaketa ekarri zuen

hitzarmena da horren eredu argiena: lau koalizio, nor bere aita eta amaren- gandik sortua. Eta hiru urteko ibilbide nahiko baketsua egin eta gero, eraikina sostengatzen duen zutabeetako baten haustura da arazo nagusia: Podo- mos-Ahal Dugurena.

Hauteskundeetarako urtebete eskas falta delarik, hari begira ari dira denak: aldaketaren aldekoak zein aurkakoak. Izan ere, Podemos-Ahal Dugu funtsez- koa izan zen PSNren erabakigarritasun maila huts bihurtu eta, horri esker, al- daketa lortzeko. Politika berria egitera zetozenek, ordea, azkarregi ikasi dute leziorik zaharrena: politikan etsaia, benetako etsaia, ez da beste alderdi- koa, etxekoa baizik. Eta, gainera, Ahal Dugukoak gardentasunaren apostoluak izanik, trapu zikinak herriko plazan haizatzea erabaki dute, guztion aitzia- nean, elkarrenganako gorrotoa zenba- terainokoa den ikas dezagun.

Ikuskizunak, jakina, arriskuan jar de- zake berez zaila zen erronka: heldu den urtean 2015eko gehiengoari eustea. Dena den, ez ahantzi: urtebete oso epe luzea da politikan, ziurgabetasunaren zelaian jokatzeko ari baikara. Rajoyk eta Sanchezek frogatu duten bezala, hiru egunetan dena hankaz gora jar daiteke. Onerako zein txarrerako. ■

Errenta 2017

Egin errenta aitorpena euskaraz

Aurreko urtetan Lezon euskaraz egin dutenen ehunekoak:

2015ean %17,8 / **2016ean** %18,7

Lezon natural



Lezoko Unibertsitateko Udala

Estatistikak: zerbitzuen ekonomian dantzan



Endika Alabort
Amundarain
EKONOMIALARIA
@autogestioa

Tokiko administrazioak, aldundiak eta gobernu autonomikoak poz-pozik daude. Hazkunde ekonomikoan gaude, langabezia tasa murriztu da. Zerbitzua da puntako sektorea eta ez dute *turismofobia* hitzarekin izendatu duten protesta multzoa ulertzen. Euskal Herri penintsularra ondo doa.

Bai, egia da azken urteetan langabezia tasa murriztu dela. EAEn %10,8 ingurukoa da, Nafarroan pixka bat murriztagoa; krisi aurreko datuak direla diote. 24 urte baino gutxiagoko gazteek latzagoa dute, euren langabezia tasa %28 inguruan baitabil. Bueno, masterrak eta gradu-ondoak ikasten dabilta, haientzako kalitatezko enplegua urria baita, nahiz eta hori irtenbidea ez izan. Hala ere, prekarizazioa dela eta, magnitude horrek langileen egoera azaltzeko gaitasun handia galdu du. EAEn sinatu ziren kontratuen %93 behin-behinekoak ziren 2017an, %40 lan jardunaldi partzialean. Langabezia tasa baxuagoa bai, baina enplegudunek lan baldintza okerragoak dituzte.

Bestalde batetik, behin eta berriro hazkunde ekonomikoa ematen ari dela aldarrikatzen dute. *Frankenstein* zerbitzu sektorea da horren irabazlea, industria, eraikuntza eta lehen sektorearen aurretik dago eta, ondorioz, enpleguaren hazkunde sektore horretan ematen ari da: EAEn, hamar enplegutatik zortzi. Horrekin lotuta, gastu turistikoa, 2005-2016 artean EAEko BPGren %5,5 iza-

tetik %6,1 izatera pasatu da, hazkunde nabaria. Depresio Handitik ateratzeko erakunde publikoek beraien Grial Santua aurkitu dute: zerbitzuen sektorea bultzatzen ari dira, ostalaritza, merkataritza eta turismoa adibide nabariak izanik. Horrela ulertzen da hainbat azpiegituraren garapena eta hirietan garatzen ari diren "kultura" ekitaldiak. Aberastasuna eta hazkundeak dakartzatelako, langabezia tasa murriztuz.

Baina zer gertatzen da sektore horietan ordaintzen diren soldatekin? Sektoreka aztertzeke informazio gaurkotuaren gabezia dago. Nahiz eta aldeak izan, erabilgarria izan daitezke INEren 2016ko datuak, Espainiako Erresumarako direnak. Batez besteko soldata hartuta, merkataritza horren %85 da, administrazio jarduerak eta beste zerbitzuak %69 eta ostalaritza %61. Sektore horietan genero arrakala %30 baino handiagokoa da.

Bultzatzen ari diren sektoreekin diru arina dator, bai, baina langileen artean birbanatzen ez dena, gizarte polarizazioa areagotuz. Langabezia tasa murrizten dute, baina enplegu ezegonkor eta prekarioen bitartez. Soldatetan genero arrakala handia duten sektoreak dira. Administrazioak kontuz ibili behar dira, epe motzeko hazkunde ekonomikoa dela eta, itsuturik ez gertatzeko. Ezpabere, gizarte kohesionatu eta justu bat izateko kontrako bidea hartuko dugu. ■

Berdea itsusi



Itxaro Borda
IDAZLEA

Badira gure artean, euskaraz mintzo direnak barne, mapetako eremu berdeak haserrezko marra gorri doilorrez gurutzefikatzen dituztenak. Eraikitzeak dituzte. Zakutik edo zorotik. Etxebizitza garestiak, sozialaz ez dira gehiago axolatzen, zentro komertzial erraldoiak, hiri bazterretan energiaz gose hamikatuak diren ausalekuak, ez dute besterik buruan. Arrabiatuak dira, gure lurraldeak erakargarri egiten dabilta pensio-funtsak eta inbestitzaileak tiratzea helburu.

Kanoiak eta zementua oinarrian dituen frantses ekonomiak beti alde berera akuilatzen ditu iniziatiba neoliberalak hobesten doazenak. Mer-

katua askatu behar dute, lurrak pozoitu, jendeak ito eta prekarietatean amilarazi, beraiek sosa egiten jarraitzen duten ber, axolarik ez daukatela. Nuklearraren obsesioaren kasuan bezala, ez dira eredu horietatik kantitzen.

Parlamentuak, duela gutxi, itsas hegiak gerizatzen dituen legeari ausiki galanta egin dio, *hortzak* deitzen dituzten etxeen arteko gune muskerrak murrutxo gorakoiez estaltzen ahal direla baimenduz. Lanjerra bertan dugu. Ez omen dute legea hunkitzen, baizik eta bere funtsaz husten eta hortik at guztia zilegi da.

Larrun mendi-gaina ere betonatzekoa dute. ■

Sinesmen baten aitortza

Konfesorik ez badut, jainkoren batean sinesten ez badut, zertan sinesten dudan galdetu zidaten azkenengo aldian, hirugarren lekuan esan nuen istorioetan sinesten dudala. Ipuinetan sinesten nuela esatea bezala izan zen. Inguruan eserita nuen epaimahaiak erantzun hori azaltzeko eskatu zidan. Istorioetan sinetsiko ez banu, ezingo nuke idatzi, esan nien, eta seguruenek, ez nuke irakurriko. Gauza batzuk, esaten ditugun arte, ez dakizkigu. Bueno, jakin bai, baina beste modu batean.


Egia lotsarik gabe esateko, istorioekin dudan harremanik gabe, mundua toki hotzagoa litzateke, bakartiagoa. Irakurtzean –eta idaztean– testua ni naiz. Edo ni naiz testua. Bat egiten dugu barruan. Ez dut lotsatu behar, jende askori gertatzen zaio eta, gainera, zientifikoki frogatuta omen dago. 2009an garuneko eskanerren bidez ikertu zuten zer gertatzen den jendearen buruan fikzioa irakurtzen dutenean: irakurleek mentalki simulatzen dute narrazioan topatzen duten gertaera bakoitza. Testutik hartzen duguna gure esperientzietan integratzen dugu. Garunean gertatzen diren prozesuak zeintzuk izan daitezkeen irudikatu dezakegu, baina “frogatu” egiten dutenean, aho zabalik geratzen naiz.

Gure oroitzapenak burmuinean idatzita ditugun istorioak dira. Uste dut hau ere frogatuta dagoela. Iraganarekin egin dezakegun bakarra da: kontatzea. Kontatzen dugun bakoitzean zentzu bat ematen diogu. Zentzu hori aldatuz edo zuzenduz joan gaitzake beharren arabera, informazio berrien arabera, ausardiaren arabera... Memoria historikoarekin egiten dena, memoria pertsonalekin ere egiten dugu. Liburuetan irakurritako istorioak prozesu horietan sartzen dira. Irakurketa batzuek terapia sesio baten eragina izan dezakete.



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

Gozamena ahalbidetzen duen irakurketa trebatu egiten den zerbait dela uste dut. Badu magia dosi bat, noski. Testuko mundua eta barruko munduaren elkarketa, talka, “gertatu” egiten da. Baina gertatzeko, irakurtzen harrapatu behar zaitu. Behin bizi izan duenak behin eta berriro bilatuko du. Bolada batez irakurtzeari uzten dionak ere, gehienetan “itzulera” bat bizitzen du aurrerago.

Irakurketan trebatzen eta murgiltzen ari den seme bat dut. Ez ditu liburuak orain deskubritu, baina fase berri batean sartzen ari da, bat-batean maitemindu egin balitz bezala. Zoragarria da kanpotik ikustea, ikusi ez, baina sumatu dezakedan zerbait gertatzen ari zaio. Ez da kontraesana. Bere barruan zer gertatzen den ezin dut ikusi, baina ikusten dut bere aurpegia: burua beste leku batean duelako, gorputzaren presentziaren eta absentsia mentalaren arteko tentsioa ikusgarri egiten duen aurpegia. Interesatzen zaion zerbait aurkitu du. Tamalez, ez da gertatu nik proposatutako liburu batekin, aitzak ekarri dizkion Dragoi Bolaren komikiak izan dira giltzarria. Baina berdin dio. Gustua hartzen badio, eroriko zaizkio eskuetan beste gauza batzuk ere.

Umetako bizipenek markatzen gaituzten bezala, umetako irakurketek ere markatzen gaituzte. Gure barruko eraikuntzaren materialak dira biak ala biak. Beste batzuen bizitzetan, jokatzeako moduetan, pentsamenduetan sartzen uzten digute fikziozko istorioek. Eta sinesten dudana da, horrek prestatu egiten gaituela gu geu eta gure ingurukoak hobeto ulertzeko, munduarekiko jakin-mina izateko. Irakurtzen duen orok dakien zerbait da hau. Zergatik esan orduan? Aski da irakurtzen dugunean zer egiten ari garen kontuan izatea. ■

BERRIAk15

ZOZKETA

Zure konpromisoa saritu nahi dugu

BERRIAren 15. urteurrena
BERRIALagunentzako
opariz beteta dator

Sartu webgunean, eta parte
hartu zozketan!

berria.eus/berriak15zozketa

Egin BERRIALagun
ekainaren 19a baino lehen
eta parte hartu zozketan!

1

Astebeteko bidaia hiru
lagunentzat **Costa Dauradara**.

2

Astebeteko bidaia bi lagunentzat
Kanaria uharteetara.

3

Lau eguneko bidaia bi
lagunentzat **Kanaria uharteetara**.

4



Eroskiko **100 euroko** hamabost
erosketa orga.

5



BERRIAren **urte osoko** hiru
harpidetza.

Laguntzaileak



berria
#BERRIAk15

DE MIGUEL AUZIA

Ustelkeriak Sabin Etxearen atea jo du

Euskal Herrian inoiz epaitu den ustelkeria kasu handienetakoa da *De Miguel* auzia. Besteak beste, dirua zuritu, legez kanpoko komisioak jaso eta hirigintza operazioekin iruzurra egitea egozten diete Alfredo de Miguel Arabako EAJko buruzagi ohiaz gain auzipetutako beste 25 laguni, horietako asko alderdi jeltzaleari oso lotuak. Ikusteke dago *euskal Gürtelak* zer faktura ekarriko duen, baina Sabin Etxean aspaldi ari dira altzariak estaltzen alderdia ahalik eta gutxien zipriztintzeko.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIAK: FOKU / J. FONTANEDA - J. RUIZ

“Boterea dute, ez dira pertsona isolatuak edo beroaldiak, baizik eta establishment osoak babesturiko jendea”. Josu Izaguirre fiskalaren hitzak, Gasteizko etorbidean dagoen eta okasiorako propio handitu duten Arabako Justizia Jauregiaren horma sendoak igaro eta Bilboko Albia lorategiraino iritsiko ziren seguruenik urtarilaren 18an, *De Miguel* auziaren epaiketa hasi zenean. Fiskalaren argudioa misil balistiko bat bezalakoa da Sabin Etxean ondu duten diskurtsoaren kontra, eta epaiketan

zehar batzuk eta besteak izaten ari diren jarrera taktikoaren erakusgarri da.

Espainiako Estatuan ustelkeria kasu batek bota ditu gobernuan zeudenak, Kongresuan oposizioaren gehiengoak mozioa onartu eta gero. Mariano Rajoyk gutxi esperoko zuen bi aste lehenago estatu aurrekontu orokorren tramitea igarota halako trantzean aurkituko zuenik bere burua: ustelkeriagatik kalera. EAJ izan da alderdi popularrari ostikoa jo diona, Aitor Estebanen hitzetan “etika politikoagatik eta erantzukizunagatik”;



izan ere, diputatu jeltzalearen esanetan *Gürtel* auziaren sententzia “mugarria” izan da.

Paradoxikoki, gurean, *euskal Gürtel* ere deitu izan den *De Miguel* auzian, EAJren itzala edonon ikus daiteke. Bere buruzagiak saiatu dira kasua alderdiarengandik bereizten, esanez hemen ez dagoela alderdia finantzatzeko inongo azpijokorik –Valentziako PPrekin ez bezala–, eta Iñigo Urkullu lehendakariak ere adierazi zuen gertaera “isolatu” bat dela, ustelkeriak ez duela “bat egiten



gure kulturarekin eta balore politiko eta sozialekin". Auzian inplikaturako EAJko kideei euren afiliatu karnetak entregatzeko eskatu zieten gainera.

Errealitatea egoskorra da ordea, galde diezaiotela Moncloako lehengo maizterriari. Zergatik behar izan zituzten hamar hilabete karnetak entregatzeko? Zerrenda batean jarritz gero *De Miguel* auzian nahastuta daudenak, jabetuko gara Arabako egitura jeltzalea bete-betean harrapatu duela ustezko ustelkeria kasuak (ikusi 27. orrialdeko koadroa).

Arabako Justizia Jauregian egiten ari diren 'De Miguel' auziko epaiketan, lehen lerroan ezker-eskuin ageri dira EAJko Arabako buruzagitzan aritutako Koldo Otxandiano, Aitor Telleria eta Alfredo de Miguel.

Esaterako, Araba Buru Batzarreko kide esanguratsuak daude zerrenda horretan: Alfredo de Miguel –foru diputatu ohia ei zen sarearen erdian zegoena, Iñaki Gerenabarrena Arabako EAJko presidente ohiaren oso gertukoa–, Aitor

Telleria eta Koldo Otxandiano; baita alkate izandakoak eta Eusko Jaurlaritzako kargudunak ere. Hala Bedik antolatutako mahai-inguru batean Jose Manuel Cámara kazetariak azaldu zuen gisan, "EAJ zen dena batzen zuen pegamendua".

"Zer egingo dugu inozo honekin?"

Arabako Justizia Jauregiko auzi-saioek gutxienez datorren azarora arte iraungo dute. 26 auzipetu daude eta denera hamaika delitu egozten diete, tartean eroskeria, dirua zuritzea, dokumentuak

faltzutzea eta prebrikazioa. 439 urteko kartzela zigorra eskatu du fiskaltzak akusatuentzat: Alfredo de Miguelel 54 urte, eta besteentzat 32 eta 4 urte arteko zigor eskaerak daude. 150 lekuko inguruk hartuko dute parte saioetan eta 20 perituren iritzia jasotzea espero da. Epaketaren iraupen luzeak zenbait momentutan bere eragin mediatikoa lausotzea ekarri du.

Seguruenik orain arteko saioetan arreta gehien deitu duena lekuko nagusiaren deklarazioa izan da: Ainhoa Alberdi enpresariarena. Berak azaleratu zuen 2009an kasua. Alfredo de Miguelek eta Aitor Telleriak 100.000 euroko komisia eskatu ziotela salatu zuen, Miñanoko teknologia parkeko hedakuntza obrak Urbanorma Consulting bere enpresari esleitzegatik, eta hori frogatzeko elkarriketen grabazio batzuk eman zizkion Arabako fiskalari. Haietan entzun daiteke Jon Etxaburu enpresaria esanez komisia "normala denaren barruan" zegoela, horrelako jokabideak zein zabaldua egon litezkeen antzemateko balio duen esaldia.

Hari horretatik tiraka, beste 700.000 euro komisiotan, 16 milioi euroko eragiketa irregularrak eta 65 milioi euroko hirigintza operazio antzu bat atzitu dute. "Zer egingo dugu inozo honekin?", galdegin zuen e-posta bidez Alfonso Arriola Miñanoko kudeatzaileak, Alberdik egindako obren faktura pasa zionean. Enpresariak estortsio saiakera ere salatu du, komisia ordaintzeari uko egin zionean haren aita Juan Antonio Alberdiren gana jo baitzuten -EAJko militantea- dirua eskatzera. Hortik aurrera, gainera, beste obretan "betoa" izan zuela dio lekukoak.

Adi! Arabako ustelkeriaren aurkako elkarteak epaitegi aurrean elkarretartzea egin zuen lekukoari babesa adierazteko "jasan dituen mendeku, presio eta deskalkifikazio pertsonalen aurrean". Alberdik fiskaltzan salaketa jarri zutenetik medik tratamenduan dago. Bere intimitatea babesteko neurri bereziak behar izan ditu deklaratzeko unean, eta hala ere akusatu eta ustezko delitugileengan beharrean lekuko baten bizkarrean jarri dituzte hedabideek begirada guztiak. "Pertsegitua" izan dela azaldu du Alberdik. Defentsaren abokatuak ordu luzez itaun dute auzi-saioetan, haren osasun egoeraz, ogasunarekin ustezko arazoez, fiskalarekin zuen harremanaz... zenbait kasutan burla egite-

» **Zergatik behar izan zituzten De Miguelek, Otxandianok eta Telleriak hamar hilabete EAJko afiliatu karnetak entregatzeko?**

» **Fiskalari emandako audioetan entzun daiteke Etxaburu esanez ustezko komisia "normala denaren barruan" zegoela, horrelako jokabideak zein zabaldua egon litezkeen antzemateko balio duen esaldia**

» **Josu Izagirre Arabako fiskalaren zorrozatasuna erabatekoa izaten ari da epaian, eta Eusko Jaurilaritza nabarmen geratu da bere aurrean, haren abokatuak hamalagarren saiora arte ez baitu galdera bakar bat ere egin**

raino; Iker Rioja El Diario.es-eko kazetariak bere kronika luze eta zehatzetan deskribatu du hori guztia.

Abokatu horiek oso ezagunak dira EAJren inguruan: Cuatrecasas bulegoko Gonzalo Susaeta, Javier Beramendi -Bravo, Cabieces eta beste zenbait auzitan aritutakoa-, Ricardo Palacio -hau ere Bravo auzian aritua-, Eneko Goenaga, Jesús Villegas, Carlos Chacón... horietako askok EAJn karguak izan dituzte. Badirudi Andoni Ortuzar buru duen alderdiak bere zuzenbide aparatu guztia akusatuen esku jarri duela. Modu bitxia

auzipetuek "EAJrekin zuten harremana garbitzeko", Urkulluk esan zuen gisan.

Afiliatu karneta galdu dute, baina zenbaitek soldata publikoa ez: Alfredo de Miguel berak Hazi-n lanpostua eman diote, "eskubide laboralak indarrean" dituelako, fundazioko zuzendariaren esanetan. Deigarria izan zen De Miguele eta Joseba Egibar Eusko Legebiltzarreko EAJko bozeramailearen arteko besarkada 2011n, deigarria ere azken honek instrukzio-epailearen kontra 2015ean esandakoak, iradokiz auzipetze autoan ondorio "politikoak" atera dituela. Deigarria eta bitxia, kasu honi loturiko dena bezala.

2010eko martxoaren 17a: atxilotetako

Ainhoa Alberdik Olympus markako grabagailu bat erosi zuen denda batean, Alfredo de Miguele eta Aitor Telleriaren presioen aurrean "babestuta" egoteko. Baina aita tartean sartu zutela jakitean audioak eta e-postak Arabako fiskalari ematea erabaki zuen. 2009ko abendua zen eta hortik hilabete gutxitara, martxoaren 17an, Ertzaintzak operazioa abiatu zuen zortzi lagun atxilotzeko, tartean De Miguel, Telleria eta Otxandiano; miaketa ugari ere egin zituen polizia autonomikoak etxe partikularretan eta bulegoetan, baita elkarte gastronomiko batean ere.

Operazioa Gasteizko 4. instrukzio-epaitegiko magistratu Roberto Ramosek agindu zuen, Arabako fiskalak Madrilgo ustelkeriaren kontrako fiskaltzari abisua pasa eta gero. Sekulako lurrikara eragin zuen Arabako Aldundian -EAJrekin batera agintzen zuen EA alderdiak "traizio" hitza ere erabili zuen- eta Eusko Legebiltzarrean ere batzorde bat sortu zen kasua ikertzeko: EAJko karguei "erantzukizun politikoak" egotzi zizkien amaierako diktamenak.

Ramosek, bere aldetik, bost urteko instrukzioaren ondoren kaleratu zuen 26 lagunengatik kontrako auzipetze autoa 2015ean. 183 orrialdeko dokumentuan epaileak dio Alfredo de Miguelek enpresa "pantaila" sare bat osatu zuela "ardura politiko edo administratiboak zituzten beste inputatu batzuekin batera" esleipen publiko irregularren bidez dirua eta komisiok lortzeko. Auto horretan, Asier Arzallus -Xabier Arzallus buruzagi jeltzale historikoaren semea- auzitik kanpo utzi zuen, De Miguele sareko enpresa bati egindako "zalan-

EL DIARIO ES

Epaiketa hasi bezperetaraino eskatu dute akusatuen defentsek bertan behe-
ra uztea, aurkeztutako audioak ez direla
baliagarriak esanez. Baina Jaime Tapiak
presiditutako epaimahaiak ez du eskae-
ra aintzat hartu, eta gogorarazi du frog
gehiago ere badaudela.

Auzi-saioen erdia eginda, epaiketak ele-berri bat idazteko adina eman du da-
goeneko. Iker Rioja kazetariaren kroni-
kek –kasu horretaz *Dentro de lo normal*
(normala denaren barruan) liburua
idatzi du– ez dute hitz bat soberan eta
haien bidez jakin ditzakegu auziaren
detaile txikiak.

③ Hojas de facts → Brecci, ~~Angela~~, Irebe
 → 27.200
 Anularea → $3.000 \times 8\% = 2.400$
 $800 \times 4\% = 32.00$ Fechas.
1/2 octubre
27.200
 TERCERA → 15.170 € (D/SNC.) (Lps) fuera de -
~~factura~~
 JON EXOBRU → 6.000 € → 13.170 €
FACTURA
19.170 € / 1/6 = Negro a b. h. u.
 Sopros de vida → Anularea
Irebe
Angela
Koldo
FACTURA SND/NA → Anularea
2 octub → Apoio Fiscal per ano

buru auzipetuta dago. De Miguelekin lotura zuten sozietate askok ez zuten langilerik izan eta Gizarte Segurantzaren ere ez zuten izenik ematen, Eskamelo SL enpresa kasu: bere bidez 65.000 euro lortu zituen EAJko buruzagi ohiak, fiskaltzaren esanetan.

25



–denera 210.000 euro–. Dirudienek Ka-taia, Errexal eta Ortzi Muga enpresei esleipenak “nahieran” egiten zizkien Xabier Sánchez Robles Gazterriako zu-zendariak (EAJ): “Bere karguaz baliatu zen enpresa horiei mesede egiteko”, dio auzipetze autoak.

Esleitutako dozenaka lan horiek justifikatzeko, Jaurilaritzaren erregistro zigilua daramaten dokumentuak aurkeztu ditu epailearen aurrean Gazterriako zu-zendari jeltzale ohiak; baina Riojak El-diariationorte-n erakutsi duenez faltsuak, erregistratu gabeak edo plagiatuak dira –zigiluetako batean, esaterako, 2007ko otsailaren 29a ageri da, egun hori sekula existitu ez zen arren–.

Zanbranako poligonoa egin gabea

Epaitzen ari diren auziak hamabi atal ditu, ezinezkoa denak hemen deskribatzea. Zanbranako operazio urbanistikoa da garrantzitsuenetako bat bere tamai-



nagatik. Udalerri hartan sekula egin ez zen poligonoa esleitzeagatik hiru milioi euroko komisioa kobratu zioten Riera eraikuntza enpresa katalanari. Fiskalaren esanetan, Iosu Arrutik gidatu zuen trama hori Sidepur enpresaren bidez, eta honek De Miguelen sareari ordaintzen zion ondoren. Zanbranako EAJko alkate ohi Maria Justina Angulo ere inplikaturik dago –lau urteko kartzela eskatzen dute berarentzat–, poligonoa eraiki behar zen lurra birkalifikatzeko garaian egindako ustezko irregulartasunengatik.

Enpresariak euren poltsikotik bezeroari ordaindutako txalet pertsonalen erreformak, Arabako Aldunditik apetzat egindako esleipenak, komisioetatik jasotako diru beltzarekin erositako terreneak birkalifikagarriak... Oraindik asko dago ikusteko eta jakiteko Euskal Herrian inoiz epaitu den ustelkeria kasu handienean.

Ezkerrean, Alfredo de Miguel EAJko foru diputatu ohi (lepokoarekin) eta Cuatrecasas bufeteko haren abokatu Gonzalo Susaeta, epaitegira bidean; eskuinean, kasua azaleratu eta salatu zuen Ainhoa Alberdi enpresari eta auziko lekuko nagusiari babesa emateko Adi! Arabako ustelkeriaren kontrako elkarteak egindako elkarretaratzea.

EAJ, familia handi(egi) bat

Josu Izagirreraren zorroztasuna erabatekoa da eta Arabako fiskalaren aurrean Eusko Jaurilaritza nabarmen geratu da, haren abokatuak hamalaugarren saiora arte ez baitu galderarik egin. Aldiz, Ertzaintzako adituek irmo defendatu dute euren lana eta akusatuen abokatuarekin tentsio uneak izan dituzte. Bizkaiko Aldundia ere –EAJren esku– akusazioaren eserlekuan dago enpresa batzuek egindako delitu fiskalengatik.

Zer irakurketa politiko egin liteke argazki horrekin? Ezin ahanztu dugu EAJ-

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu

SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu
zailetarako

Tel.: 943783447 · 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otañu Gotzaina kalea, 27 · Oñati

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen

ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

'DE MIGUEL' AUZIKO 26-AK

ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE. Arabako Tokiko Administrazio eta Lurralde diputatu ohia EAJtik, alderdi horren Araba Buru Batzarreko (ABB) kide esanguratsua izan zen. Zigor eskaera: **54 urte eta 11 hilabete.**

AITOR TELLERIA LANBARRI. EAJren ABBko kide ohi, batzokiak eraikitzen zituen Landaburu Etxea SL-ko enplegatu izan zen, lehenik De Miguel eta gero Iñaki Gerenabarrenaren eskutan zegoen enpresa. Zigor eskaera: **32 urte eta 2 hilabete.**

KOLDO OTXANDIANO GREDILLA. EAJren ABBko kide ohia, Miñanoko Teknologia Parkearen finantza arduradun izan zen. Zigor eskaera: **32 urte eta 2 hilabete.**

AINHOA BILBAO LASA. De Miguelen bikotekidea, sareko hainbat enpresen izen-mailegatzaila. Zigor eskaera: **30 urte eta 6 hilabete.**

ARACELI BAJO LOPEZ. Telleriaren bikotekidea, sareko hainbat enpresen izen-mailegatzaila. Zigor eskaera: **21 urte eta 6 hilabete.**

IRATXE GAZTELU-URRUTIA SANCHEZ. Otxandianoaren bikotekidea. EAJko hautagai 2009ko hauteskunde autonomikoe-tan. Kataia Consulting-eko bazkide. Zigor eskaera: **21 urte eta 6 hilabete.**

AINTZANE DE MIGUEL AGIRRE. De Miguelen enpresen kontuak eramaten zituen. "Faktura faltsuak" sortzea leporatzen diote. Zigor eskaera: **13 urte.**

ALFONSO ARRIOLA LACRUZ. Miñanoko kudeatzaile izan zen eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiako auditore ere bai. Zigor eskaera: **21 urte.**

MIREN LOURDES BILBAO LARRAURI. Miñanoko parkeko zuzendari ohi. Zigor eskaera: **11 urte eta 6 hilabete.**

JULIAN SANCHEZ ALEGRIA. Euskal Parke Teknologikoen sareko presidente ohi Ibarretxeren garaian. *Epsilon* kasuagatik ere ikertua. Zigor eskaera: **17 urte.**

GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA. Jaurilaritzako Gazteriako sailburuorde ohia (EAJ). Gazteriako ustezko kontratu irregularrak sinatu zituen. Zigor eskaera: **17 urte.**

JAVIER SANCHEZ ROBLES. Jaurilaritzako Gazteriako zuzendari ohia (EAJ). Sail horretako esleipenak "nahieran" egin zituen. Zigor eskaera: **18 urte eta 4 hilabete.**

SERGIO FERNANDEZ OLEAGA. Stoa SL enpresako administratzaile ohi eta EAJko kide batzuen sozio. Zigor eskaera: **12 urte.**

IÑAKI SAN JUAN BILBAO. EAJko Leioako Kultura zinegotzi ohi. De Miguel sareko enpresen administratzaile izan zen. Zigor eskaera: **19 urte eta 2 hilabete.**

JON IÑAKI ETXABURU BARAINKA. Loizate enpresaren jabea, Araban EAJren kontrolpeko obra publiko ugari esleitu dizkiote, ustez modu irregularrean. Zigor eskaera: **11 urte.**

IOSU ARRUTI LETEMENDIA. Zanbranako hirigintza operazioa bideratu zuen enpresaren jabe. Zigor eskaera: **19 urte eta 10 hilabete.**

JESUS ARRUTI ODRIOZOLA. Aurrekoaren aita, Zanbranako operazioko enpresetan parte zuen. Zigor eskaera: **19 urte eta 6 hilabete.**

ESTIBALITZ ARRUTI LETEMENDIA. Zanbranako operazioko Sidepur enpresako langile bakarra. Zigor eskaera: **6 urte.**

GORKA ERRASTI FLAÑO. Aurrekoaren bikotekidea, Zanbranako operazioko enpresetan parte zuen. Zigor eskaera: **6 urte.**

PRUDENCIO HIERRO LOPEZ DE ARBINA. Eraikuntzako enpresaria, EAJko Gasteizko egoitza berriaren diseinuarekin eta De Miguelen enpresekin lotura zuzena zuen. Zigor eskaera: **7 urte.**

JOSU MONTES AZKARRAGA. Bilboko erakunde publikoetan aritutakoa EAJk proposatua. De Miguel sareko enpresetan lan egin zuen. Zigor eskaera: **17 urte eta 6 hilabete.**

JOAQUIM SABATER BOU. Zanbranako operazioan parte hartu zuen Riera enpresa katalanari lotua. Zigor eskaera: **7 urte eta 6 hilabete.**

RAMON TOMAS RIBA. Riera-rekin lotura zuten enpresen administratzaile. Zigor eskaera: **7 urte eta 6 hilabete.**

PLÁCID CASAS BAQUES. Riera-rekin lotura zuten enpresen administratzaile. Zigor eskaera: **7 urte eta 6 hilabete.**

FRANCESC FERNANDEZ JOVAL. Riera eraikuntza enpresako kontseilari delegatu ohia. Zigor eskaera: **7 urte eta 6 hilabete.**

MARIA JUSTINA ANGULO. Zanbranako EAJko alkate zen udalerrian poligonoa egiteko birkalifikazioa egin zenean. Zigor eskaera: **4 urte eta 6 hilabete.**

Asier Arzalluz eta Pablo Larrabide auzitik kanpo utzi ditu instrukzio epaileak.

ren barnean dauden familien arteko botere borrokek bete-betean jo zutela alderdiaren egitura Araban, hain justu ustelkeria kasua azaleratu zenean. *Estado de Excepción* eztabaida saioan, Ahoztar Zelaieta ikerketa-kazetariak sektore "independentista" eta "PPko ustelekin hitz egiten duena" bereizi ditu. Bere

ustez, *De Miguel* auzia Arabako EAJren sektore independentistari –Gerenabarrenaren ingurukoak hor kokatu izan dituzte analista politikoek– kontra egiteko "suebaki" bat izan da, azken batean "historia txiki bat" baita Zelaietaren aburuz. Zer gertatuko litzateke Ainhoa Alberdik 2009an "kutxatilatik pasatzea" agin-

du ziotenean, kasu egin eta fiskaltzari ezer kontatu ez balio? Akaso izango al genuke De Miguelen berri gaur? Eta zer gertatuko litzateke Ainhoa Alberdi gehiago baleude, Euskal Herria urte luzez politikoki eta ekonomikoki gobernatu dutenen pegamenduari tira egiteko ausardiarekin? ■

Anfibioak

Parkeko biztanle ezkututuak



Ilunargitan sartu gara Donostiako Aieteko parkean. Gure bizkarrean itxi dute sarrerako ate nagusia. Hamar bat pertsonak osaturiko taldetxoa, barruan gaude, bakarrik. Ba al du zentzurik hemen egoteak? Parkeak gizakiarentzako aisialdi eremu soila direla pentsatzen duen horietakoa bazara, ez diozu zentzu askorik aurkituko. Hiriko animalien eta landareen kontserbaziorako eremu garrantzitsuak izan daitezkeela sinesten baduzu, ordea, bai. Gautu du eta parkera etorri gara bertako anfibioak ikustera.



Iñaki Sanz-Azkue

@sanz_azkue

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Aranzadi Zientzia Elkartek antolaturiko ikastaro baten aitzakian gerturatu gara Aieteko parkera. Ion Garin-Barrio dugu gidari. Inguruan ditugun anfibio espezieak ezagutzeko mendira joatea izango litzateke arruntena, edo, zergatik ez, inguruko parke naturalen bateko hezegune zoragarri batera gerturatzea. Hemen gaude, alabaina, hiriko eremu berde ba-

ten erdian, gauez eta anfibioak ikusteko asmoz. Izan ere, herri eta hiriko parkeetan bizitza dago. Egunez eta gauez. Uste duguna baino askoz gehiago, gainera.

Errege-erreginak, Bake Konferentziak eta... apoak

Aieteko parkeak XIX. mendeko Donostiara garamatza: itxura neoklasikoko jauregi handia du, zelai berdeak eta lorategiak, urmaelak, haitzuloak, ur-jauziak... eta inguruan dozenaka arbola ezberdinez osaturiko eremua. Ez da zaila bisitariarentzat bertatik pasa diren Isa-

bel II.a, Alfonso XII.a, María Cristina eta Alfonso XIII.a Espainiako errege-erreginak inguruko bidetxoetatik paseatzen irudikatzea; edo Ingalaterrako Victoria erregina urmaelaren aldamenean eserita imajinatzea.

Franco diktadoreak ere bertan igaro zituen hainbat uda, eta ibiliko zen, ziur aski, udako egun sargorietan babes bila arbolen gerizpean, ur-jauzitik erortzen den urak sortzen duen haize freskoa sentitu nahian. Ez zuen esperoko, noski, hantxe, urte batzuk beranduago elkartuko zirela nazioarteko hainbat aditu Aie-



teko Bake Konferentzian; baina hala izan da. Aietetik itxura, jatorri eta pentsaera askotako pertsonak pasa dira. Bitartean, ordea, urmael horretan ezkutaturik, edota basope horretako sustraien artean gorderik, oharkabea igaro dira Aieteko parkeko biztanle txiki batzuk: anfibioak.

Uhandreak, igelak eta apoak

Udaberrian egin dute ikastaroa Aran-zadikoek; ez da kasualitatea. Oraitxe da sasoi onena anfibioak ikusteko. Ugal garaian daude bete-betean eta parkeko urmaelek eta putzuek igelen, apoen

eta uhandreen bisita jasotzen dute urtaro honetan. Historian zehar Aieteko jauregitik pasa diren pertsona handi-mandi horiek zapabururik igerian edo igelik saltoan ikusi zuten ez dakigu, baina nahiko ziur esan dezakegu kantuan, behintzat, entzungo zituztela.

Izan ere, ur-igel arruntaren (*Pelophylax perezii*) kantua entzuteko modukoa da. Udaberri eta udako egun beroetan, egunean zehar zein iluntzean entzuten dira, marrakaz, kantu ozen eta zalapartatsuan. Entzun ez ezik, ikusi ere ikusi dugu ur-igela. Urmaelaren ertzean, burua uretatik

kanpo duela, gorputza barruan, zelatan ibili zaigu. Onar dezagun: hor, ordu horretan, soberan ginenak gu ginen.

Ur-igelarena, baina, ez da entzun dugun kantu bakarra. Txantxiku arruntak (*Alytes obstetricans*) ere bere gaueko koroa martxan jarri du. Baso azpian ibili da, txistu hots eta kantuen arteko bere ohiko soinu nahasketa horrekin gu zirikatzen: "Kun-kun". Europako apo espezie zaharrena da. Erraza da bere kantuekin dagoen tokira hurreratzea. Aurkitzea, ordea, beste kontu bat da. Metro erdira eduki arren, ez uste ikus-

teko erraza denik. Zaharraren esperientzia izango da, agian. Ur-jauziaren soinu jarraia eta txantxikuaren kantu fina dira gaueko isiltasuna hausten dutenak. Soinu lasaigarria da, ordea. Bake konferentziak hemen behar zuen izan, nahitaez...

Esku-argiak piztuak ditugu. Arratsaldean ikastaroaren atal teorikoa izan duten herritarrak gustura dabilta ikasitakoa praktikan jartzen. Onena, ordea, iristear dago: uhandreak falta dira!

Uhandreak anfibio isatsdunak dira. Urodeloen taldekoak. Urmaelaren hondoan behatu dugu, eta hor daude. Bi uhandre mota ezberdindu dituzte ikastaroko ikasleek Aieteko parkean: uhandre palmatua (*Lissotriton helveticus*) eta uhandre marmolairea (*Triturus marmoratus*). Ur azpian daude. Geldi. Arrak eta emeak harrapatu ditu Ion Garin-Barriok. Bera da animaliak manipulatzeke baimena duena. Azalpenak argigarriak izan dira, eta uhandre marmolairea ikusi izana, denbora askoan ez ahazteko modukoa.

Parkeen garrantzia anfibioen eta bioaniztasunaren kontserbazioan

Aieteko parkean lau anfibio espezie ikusitako aukera izan dugu. Baina egon, badaude gehiago. Apo arrunta (*Bufo spinosus*) eta arrabio arrunta (*Salamandra salamandra*) ere bizi dira bertan, nahiz eta gaurkoan ez ditugun ikusi. Donostiako anfibio espezieen ehuneko handia dago bertan. Anfibioak munduko ornodun talde mehatxatuena dira eta zaila dirudi parkeek horien kontserbazioan zeresanik eduki dezaketela pentsatzeak. Eredu berdeek, ordea, hirietako anfibioen bizileku moduan, eta orokorrean, bioaniztasunaren arnagune gisa joka dezakete, eta beraz, garrantzitsua da horien kudeaketan ere bertako eta inguruko fauna eta flora espezieak kontuan izatea.

Hirietako parkeek gizakiaren aisialdirako duten erabileraz gain, hezkuntzarako zein hiriko bioaniztasunerako funtzio garrantzitsuak bete ditzakete -hone-taz gehiago irakur dezakezu ARGIAren 2559 zenbakiko *Natura nola bizi eremu urbanoko ikastetxeetan* artikuluan-. Ekintza sinpleekin, eta parkearen paisai orokorraren eta barneko eremu txikien (mikrohabitaten) antolaketa eta kudeaketa egokiarekin, funtzio horiek guztiak uztartu daitezke. Eta espezie mehatxatuen populazioak kontserbatzeko erabili daitezke. ■



Goitik behera, Aieteko parkean gauzez aurkitu ditugun anfibioetako batzuk:
 Uhandre marmolairea (*Triturus marmoratus*), arra.
 Txantxiku arrunta (*Alytes obstetricans*), gaztea.
 Uhandre palmatua (*Lissotriton helveticus*), emea.

Diabetesa

Intsulina, azukrea odoletik ateratzeko

Jon Cano donostiarrek diabetesa du. 12 urterekin diagnostikatu zioten eta gaur, hamar urte beranduago, hauxe da bere mezua: "Jendea asko larritzen da gaixotasunarekin, baina zaindu eta kontrolatuz gero, bizitza ez da hainbeste aldatzen. Gauza okerragoak badaude munduan".



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak



Jon Cano donostiarrek berebiziko garrantzia ematen dio elikadura zaintzeari.

Bi diabetes mota daude: insulina produzitzen ez duena eta insulinararen erabilera okerra ematen duena. Canok lehenengoa du; bere pankreak ez du organismoak behar duen insulina produzitzen eta horrek glukosa (azukrea) odolean pilatzea dakarkio. Hori medikamendu bitartez jasotzen du: "Egunean hiru bider insulina injekzio bat ematen dut. Kantitate bat daukat, medikuak markatua. Badakit, ordea, bazkari edo ekimen bereziren batean egongo banaiz edo zerbait berezia jan nahi badut dosia zertxobait handitu beharko dudala". Medikarengana hiru hilabete behin joaten dela gaineratu du, hemoglobina maila zaindu eta sustorik ez hartzeko.

Esaterako, duela sei hilabete susto bat izan zuela kontatu digu: "Arnasa hartze-ko zailtasunak nituen eta medikuarengana joan nintzen. Flemak zirela esan zidan, baina koma egoerako sintoma bat zen. Handik bi ordutara koma sartu nintzen. Gogoratzen dut pisukideak etxean zeudela eta anbulantziari deitu niola. Azukrea begiratu zidatenean 580an nuen". Normalena, 70-100 bitarteko azukrea izaten du gorputz batek. Canok, medikamenduarekin 120 izaten du, gutxi gora-behera. 500etik gorako kasuetan ZIUra (Zainketa Intentsiboetako Unitatea) daramatela kontatu digu. Han pasa zituen bost egun: "Anbulantzia sartu ondoren ZIUan esnatu nintze-

la gogoratzen dut, gurasoen ondoan, zer pasa zen jakin gabe. Hasieran ez zidaten ezer kontatu, lehen bi egunetan ez baitzekiten bizirik jarraituko nuen ala ez".

Ohiko gaixotasuna da diabetesa, baina litekeena da hasiera batean ezertaz ez ohartzea. Glukosa altuak ez baitu minik ematen. Kaltea barrutik egiten duela azaldu du Canok. Hartara, zaintzen ez bada, organismo osoa hondatzera irits daiteke eta arazoak sortu bihotzean, oinetan, begietan edo giltzurrunetan, itsu gelditu edo hanka anputatzeraino ere: "Nire lagun bat itsu geratu zen 20 urterekin eta giltzurrunen funtzionamendurik gabe. Handik gutxira zendu zen. Hala ere, ez zuen batere bizitza osasuntsua egiten".

Diabetikoen ezaugarri bat da beste gaixotasunen kalteak nabarmenagoak direla. Katarro bat gaizki sendatzen bada pneumoniara irits daitekeela kontatu digu. Edo zauri bat sendatzeko beste gorputz batek baino bi bider denbora gehiago behar duela. Horregatik, injekzioez gaintzi, bizitza osasuntsua eta, batik bat, elikadura osasuntsua izatea beharrezkotzat jotzen du. "Edozer sentitzen dela eta medikuarengana joatea aholkatzen dut, eta ez utzi eta utzi, nik hori egin nuen azkenekoan". Ildo berean mintzatu zaigu azukrea jan dezaketean galdetu diogunean. Pixka bat har dezaketela esan digu, beti ere ez den

egunerokoan izaten, hori gaixotasunari jaramonik ez egitea litzakeelako.

Gaur "oso ongi" sentitzen dela gaineratu du, gaintzea kosta zitzaion arren. Medikak esan zion: "Indarra zure kabuz hartu beharko duzu edo ez duzu inoiz hartuko". Hortaz, pixkanaka kalera irteten eta pisua hartzen hasi zen eta bizitza normala egiten du berriro. "Baldintza bat dut eta kito, ni ez naiz inor baino gutxiago edo gehiago. Gaixotasun hau, zaintzen bada, eramangarria da eta erraza, gainera".

Pankreetara itzuliz

Aurrez aipatu bezala, pankrearen insulina jariaketa ezak dakar azukrea odolean areagotzea. Horren aurrean, gorputzean insulina sartzea da maiz ematen den tratamendua, Canok egiten duen bezala. Dena den, shiatsu izeneko medikuntza alternatibo japoniarrak pankreen funtzioak berrezartzeko aholkuak ditu, beti ere laguntza moduan. Hainbat ariketa proposatzen ditu medikuntza mota horrek: Pertsona buruz behera etzan eta lepoaren goialdeko zazpigarren lepoa topatu beharko da lehenik. Hamar orno beherago dagoen muskulua erlaxatu ondoren. Azkenik, kontrakturadun gune muskular hori bizkarrezurraren bi aldeetan erlatxatzeak pankreen funtzioen hobekuntza ekar dezake. ■



Olivier Peter

“DELITU POLITIKOA JENDE ZINTZOAREN DELITUA DA”

Genevan (Suitzan) erbesteratuta dagoen CUP-Crida Constituenteko diputatu ohi Anna Gabriel Sabatéren abokatua da Olivier Peter (Zurich, 1986). Giza eskubideetan, nazioarteko zuzenbide penalean eta estradizioetan aditua da. Legelari suitzar gazteari eskatu dio aholkua militante antikapelistak. Peterri ez zaizkio elkarrizketak gustatzen, baina *La Directa*ekin hitz egiteko prest agertu da. Bi hedabideon arteko harremana medio, ARGIA elkarrizketa euskaraz eskaini nahi diegu irakurle euskaldunei.

Elkarrizketa: David Bou / La Directa

Argazkiak: Victor Serri

Itzulpena: Asier Beramendi

Anna Gabrielelek Auzitegi Gorenean ez aurkeztea eta Genevara joatea erabaki duenean hasi da zure papera Katalunian. Zein egoeratan dago bere aurkako prozedura?

Desobedientzia delitua egotzi dion auzipetze-autoa ezagutzen dugu, eta larritasun txikiko delitu politikoa denez, ez dago estradizio eskakizunik. Momentu honetan Suitzan bere aurkako prozedurarik ez dagoenez, nire eginkizuna Anna aholkatu eta bere eskubideak errespetatzen direla bermatzea da.

Zer baldintza bete behar dira estradizio eskakizuna egin ahal izateko?

Gutxienez urte beteko kartzela zigorra. Annaren kasuan, desobedientziagatik, hiru eta hamabi hilabete bitarteko inhabilitazio zigorra legokio. Matxinada delitua leporatzen zioten hasieran, baina Suitzako barne zuzenbidearen eta herrialde horrek Europar Kontseiluko estatuekin duen hitzarmenaren arabera, ezin da delitu politikoengatik inor estraditatu. Eta delitu hau, argi eta garbi, erabat politikoa da.

Zer jarrera azaldu du Suitzak Anna Gabrielen egoera prozesalaren, egotzen zaizkion delituen eta estradizio eskakizuna onartzeko hipotesiaren aurrean?

Suitzak nahiko adierazpen harrigarria egin zuen militante antikapitalista bertan zegoela jakin ostean, Espainiako justizia ministro Rafael Catalá estradizio batek "ez lukeela arazo berezirik eragingo" esan zuenean. Cataláren homologoaren bozeramaileak esan zuen delitu politikoak zirela eta Suitzak ez duela delitu politikoengatik inor estraditatzeko. "Eskakizunik jasoz gero, aztertuko dugu, baina delitu politikoak dirudite eta, hala badira, ez dugu estraditatu".

Suitza Europar Batasunean ez egoteak estradizioen funtzionamenduari desberdintasunik ba al dakar estatu ki-deen artean?

Bada Europako Batzordearen hitzarmen bat, 1957ko Estradizioaren Europako Hitzarmena izenekoa, Europako estatuen artean erabiltzen zena Europar Batasunak pertsonak entregatzeko bere lege propioa edukitzea erabaki zuen arte, egun euroagindu gisa ezagutzen dena arautzen du. EBko mekanismo berri honek aurrekoa ordezkatzeko du estatu kideentzat, baina Suitza kan-

poan da eta hitzarmen zaharrari atxikia jarraitzen du. Honen hirugarren artikulua esplizituki zehazten du ez dela delitu politikoengatik inor estraditatu.

Asilo politikoa eskatzea aztertu duzue al azken hilabeteetan bezala jarrai dezake Gabrielelek Suitzan bizitzen?

Suitzak EBrekin duen hitzarmen batek aukera ematen die EBko herritarrei hara joan eta hiru hilabete egon ondoren bizileku baimena eskatzeko. Egoeraren inguruko xehetasunik azalduko ez dudan arren, baieztatu dezaket momentu honetan bizileku baimenarekin Suitzan legalki bizi dela eta ez dagoela beharrik asilo politikoa eskatzeko.

Diozu delitua politikoa dela eta Gabrielelek alde egin zuela Espainiako Estatuan epaiketa justu baten bermerik ez zuelako. Zein dira gakoak?


Auzi hau ikertzen ari diren epaileen partzialtasuna agerikoa da. Auzitegi inpartzial eta independente bat exijitzea zuzenbide estatuaren ezinbesteko oinarria da eta, kasu honetan halakorik ez dagoenez, ez dago epaiketa justuen aukerarik. Seguraski, kasu honetan egon zitekeen epaiketa justu bakarra auzia bertan behera utzi eta jendea bozkatzeko uztea litzateke.

Zergatik kontsideratu zen Suitza dela aukerarik onena?

Anna Suitzarekin saiatu bada, batetik, arrazoi sinboliko eta politikoengatik da. NBEaren egoitza bertan da, baita Giza Eskubideen Kontseiluaren eta beste nazioarteko erakunde askoren ere, diplomazia gune bat da eta beste herrialde batzuek baino garatuago du demokrazia herrikoia eta erreferendumak egitea. Bestetik, kontu juridiko batengatik: lehenago aipatu dugun hitzarmenaren prozesua ezberdina da, delituen izaera politikoa den ala ez aintzat hartzen du, beraz, luzeagoa eta konplexuagoa da. Hala ere, harritzekoa da euroagindua bezalako prozesu azkar eta errazak denboran hainbeste luzatzea. Pablo Llorenaren argudioen ahulezia agerian uzten du.

Katalunian eta Espainiako Estatuan gertatzen ari dena nola jasotzen dute Suitzako gizarteak eta insituzioek?

Urriaren lehena arte, independentziaren aldeko mugimendu indartsu bat eta gatazka bazirela bagenekien. Aldarri



horri Espainiako Estatuak eman dion erantzunak, poliziaren biolentziak, zigorgabetasunak eta, batez ere, Espainiako Gobernuak gertatutakoa nazioartean egin duen kontakizunak ikusgarritasun gehien zuen Carles Puigdemonten tesia zuzena dela frogatu dute: salbuespeneko demokrazia eta eskubide zibil eta politiko urraketa gertatzen ari direla defendatzen du.

Epaileen esparruan ikusten al da Espainiako Estatuak ez dituela babesten bere herritarren eskubideak, Europako beste estatu batzuek bezala?

Anna Gabriel Suitzan zegoela iragarri zenean, espektro ideologikoaren segmentu guztietako profesionalek onartu zuten prentsan Espainiako epailetzaren partetik jazarpen politikoa existitzen dela.

Zer babes sozial du Anna Gabrielelek Suitzan?

Badira CUPen eta ezker independentistaren kausaren aldeko sektore militante minoritarioak, beren ikuspegia de-



fendatzen dutenak. Ondoren, askoz ere zabalagoa den sektore batek, Annaren eta jazarritako edozein pertsonak politikoki adierazteko askatasuna aitortzen du. Ez daude independentziaren aldeko ikuspegiarekin ados baina, bozkatzeko aukera balute ezezko bozka emango luketen arren, aldarrikatzen dute pertsona horien bozkatzeko eta adierazteko eskubidea. Askok dira eta ez dira soilik ahoz adierazten, Annak jasotzen duen sostengua konkretu eta materiala izugarria da.

Kataluniatik egiten diren mugimenduen aurrean, Espainiako Estatuak diplomatikoki erantzuten al dio Suitzari? Zer gertatu zen Hervé Falcianirekin orain hilabete batzuk? Kromoak aldatzeko saiakera izan zen?

Falcianiren atxilotetaren *timingak*, Suitzak pertsona hau entregatzeko eskariak Auzitegi Nazionalaren mahai gainean urtebete zeramanean atxilotzeak, botere judizialaren independentzia falta eta hau gobernuaren interesen menpe dagoela adierazten du berriz ere. Marta

» “Gatazka politikoaren ukazioak Espainiako Gobernuaren sinesgarritasuna kaltetzen du argi eta garbi”

Rovira Suitzan zegoela iragarri eta hamar egunetara atxilotzea erabaki zuten. Bestela azal ezin daitekeen kasualitatea da.

Mugimendu diplomatikoen inguruan ez daukagu informazio askorik. Alfonso Dastis, Espainiako Atzerri ministroa bere homologo suitzarrarekin elkartu zela badakigu. Horixe da ekintza konkretu bakarra. Eskakizun askorekin etorri eta esku hutsik itzuli zen. Suitzako gobernuak esan baitzion bi pertsona estraditatu nahi bazituen eskariak modu egokian aurkeztu beharko zituela, hau ez dela bahituen trukea, indarrean diren legeen erabilera baizik.

Suitzako gizartearentzat nahiko sinestezina izan zen telebista publikoan egindako elkarriketa batean, komunikatiboki zeinen gaizki argudiatu zuen Dastis ministroak bere posizioa. Puigdemont entregatu beharreko gaizkile arrunta zela eta erreferendumik ez zela egingo Konstituzioak debekatzen duela, eta kitto. Gatazka politikoaren ukazioak Espainiako Gobernuaren sinesgarritasuna kaltetzen du argi eta garbi.

Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegian aditua zara, zein erabilera izan lezake helegite bat aurkeztuz justizia europarrera jotzeak, halako prozesu bategen dakarren denbora luzatzea kontuan hartuta?

Heriotza zigor edo tortura arrisku handiko kasuetan izan ezik, Europako justiziak ez du behin-behineko neurririk agintzen. Beraz, behin-behineko neurririk ez, baizik eta hiru eta zortzi urte bitartean luza daitezkeen prozedurak hasiko dira.

Ez dut uste Europako justiziak epe motz edo ertainean arazoak konponduko dituela espero behar denik. Hala ere, egun ematen diren oinarritzko eskubideen urraketek nolabaiteko aitortza behar dute. Iraupen lasterketa da eta epe luzean egin beharreko borroka dugu hau. Hamar urte barru iritsi arren, erabilgarri izan daitezke aitortzeko egun Katalunian gertatzen ari dena ezin dela onartu eta oinarritzko eskubide politikoaren urraketa dela.

Momentu honetan Anna Gabrielek Espainiako lurraldean atxiloteta agindua du, baina egozten zaizkion delituek ez dute kartzela zigorrik. Bera itzularazi eta hemen dagoenean delitu berriak egozteko amarrua izan liteke?

Ez dugu Espainiako justizian konfiantzarik, ez dakigu zer egin nahi duten. Hala ere, argi dago atxiloteta edota prozedura injustu baten arriskua dagoen bitartean ez dela itzuliko.

Noiz amaituko da arrisku hau?

Ez dakit, hemengo abokatuei galdetu beharko zenieke... edo Errepublikaren egunean edo haiek dioten egunean. Delitu politikoa jende zintzoaren delitua da. Ez dut uste Anna edo gainontzeko erbesteratuek deliturik egin dutenik. Eta, egin badute, jende zintzoaren delitua da. ■

BIZKAIKO BASOA

kontserbazio kaxkarrean, baina atzera buelta egiteko garaiz oraindik

Bizkaiko baso autoktonoa berreskuratu eta basoen kudeaketa publikoan aldaketak sustatzeko helburuarekin, Kolore Guztietako Basoak plataformak iazko urrian eman zuen ezagutzera bere burua. Bertako basoaren galerak lurraren emankortasunean eta bioaniztasunean daukan inpaktu negatiboaren aurrean, plataformak konponbiderako bidea murriztera gonbidapena egin du aurkeztutako proposamenarekin.



Amaia Lekunberri Ansola
@amaialekunberri

Eusko Jaurlaritzak basoen kontserbazio egoeraren inguruan 2011n egindako azterketak Euskal Herriko basoen kontserbazio egoera kaxkarraren berri eman zuen. Bizkaia da, azterketaren arabera, landare autoktonoak (haritza, erkametz, haltza, artea eta pagadia) barne hartzen dituen gainazal gutxien duen lurralde historikoa, eta ondorioz, kontserbazio eskasena duena. Lurraldearen gainazal osoaren %71,86ko baso-azalerarekin, honen %59,55 osatzen dute zuhaitziek, 158.988 hektarea. Baso-azalera horren %75,61 eukalipto eta pinu plantazioak dira ordea, eta bertako espezieek baso-azaleraren gainontzeko %24,36 besterik ez dute osatzen. Espezie autoktonodun zuhaitziak, gainera, txikiak dira eta elkarrengandik sakabanatuta daude, osasuntsua kontrako litzatekeelarik plataformako kide Julen Villasanten arabera.

Egoera horretara nola heldu garen azaldu du plataformak. Honen arabera, *Radiata* pinua 1847an heldu zen lehen aldiz Bizkaira, eta kanpotik ekarritako zuhaitz honen mozketak ahalbide-tu zien hainbati “euren baserrietako teilatu eta etxebizitzaren diru-sarrerak” ordaintzea. Mende eta erdi igaro den honetan, baina, *Radiata*ren jatorrizko

lurraldea den Kalifornian pinu honen hedadura 4.000 hektareakoa den bitartean, 70.000 hektareakoa da Bizkaian, baso eremuaren %53. Egurra ekoiztu asmoz landatzen hasitako espezie aloktonoek (jatorriz kanpokoak) bertakoak ordezkatzen amaitu dute.

Azken urteetan pinuaren egurrak baliari dagokionez izan duen beherakadak, kanpoko beste zuhaitz baten landaketa masiboa eragin du: eukaliptoak. Landare honek osatutako zuhaiztia da azken urteetan hedadura gehien izan duena, eta neurririk hartu ezean hedatzen jarraitu duela ohartarazi du plataformak.

Bertako basoa kanpokoagatik ordezkatzearen albo kalteak

Pinua bezalaxe, eukaliptoak ere “merkatu globalaren legeen menpeko produktua” dela adierazi du plataformak, eta “zalantzezkatzat” jotzen du epe luze-ra begirako honen errentagarritasuna. Faktore ekonomikoek dagokionez ekarri ditzakeen onuren gaineko mesfidantza alde batera, nabarmen negatiboak diren bestelako eraginak ere ekarri ditu eukaliptoak gurera. “Eukaliptoak beste espezieei konpetentzia egiteko mekanismoak garatu ditu, ura xurgatzen du ingurutik eta basoak sute-arriskuan jarri, sutetik bizirik ateratzeko gaitasuna baitauka” azaltzen du Villasantek. Era berean, xurgatzen duen ur hori bere

hazkuntzarako erabiltzen du, “inguruetako erreken emariak gutxitu eta flora zein faunari kalte larriak eraginez”, Villasanten arabera. Hau gutxi balitz, eukaliptoak egondako lur-eremua leheneneratzea konplexua da oso, hainbat belaunaldiz jarraitzen baitu eukaliptoak moztutako aleetatik berriro jaiotzeko saiakerak egiten.

Eukaliptoaren kalteak alde batera, plataformak azpimarratzen du *Radiata* pinuak zein eukaliptoak, biek eragiten dutela lurzorua zaurgarritasuna. Hauen landaketa zein uzta metodoak produkzio funtzioa besterik ez dute betetzen, ingurumen faktoreetan erreparatu gabe. Bioaniztasunari dagokionez, baina, dezenteko kalteak eragiten dituztela adierazten du plataformak, arrisku nagusi gisa azpimarratuz espezie inbasoreak sartzea eta habitataren suntsiketa zein zatiketa.

Pinu zein eukalipto monokultiboak lurzoru emankorretan eta materia organikoa dagokionez aberatsetan landatuak izan arren, basogintza gestioak lur horietan negatiboki eragiten duela azaltzen du plataformaren txostenak. Pinuen kasuan 35-40 urtero eta eukaliptoen kasuan 12-15 urtean behin egiten diren mozketetan, adibidez, eremu osoko zuhaitzak ebakitzen dira egungo basogintza gestioak darabiltzan teknikekin. Eta mozketa horiek zuhaitzen gerizpean sortutako oihanpearen desagertzea era-



giten dute. Pistak irekitzeko makinaria pisutsuaren erabilpena, egurra arrastaka erabiliz egikaritzen diren lanak, zein lan mekanizatuak dira gestioari dagokionez bioaniztasuna kaltetzen duten beste zenbait faktore. Honek guztiak eragiten dituen kalteen artetik nabarmentzekoa da lurraren karbonoa xurgatzeko gaitasunaren galera, zeinari esker aldaketa klimatikoari aurre egiten zaion.

Bestelako baso kudeaketaren aldeko apustua

Egoera hau izanik, bertako basoa leheneratzeko beharrian larria azpimarratu du Kolore Guztietako Basoak plataformak, eta horretarako neurriak hartzerakoan, "ausardia administrazioak izan behar duela" dio Villasantek. Proposamena, gehienbat, Bizkaiko Foru Aldundiari eta udalei zuzendurik dago, baso autoktonoak berreskuratzerakoan beraien esku-hartzea esanguratsuena delakoan.

Basogintza kudeaketa eredua aldatzeko planteamendua egin dio plataformak Foru Aldundiari, bere esku dauden titularitate publikoko lurri begira gehienbat. Irizpide orokor gisa, bertoko basoa leheneratzeko xedez, espezie aloktonoek hartzen duten lurren azalerari muga bat jartzeko eskatu diote, mendi publikoetan espezie autoktonoak sustatzearen alde 1994an onartutako araua orain artean ez duela bete azpimarratuz. Eta Na-

2010eko baso inbentarioaren arabera, Bizkaiko zuhaiztien gehiengoa baso misto atlantikoak eta Quercus Robur hariztiak hartu beharko lukete eta baso-azaleraren %13,33 besterik ez dute betetzen.

- » Egurra ekoiztu asmoz landatzen hasitako espezie aloktonoek bertakoak ordezkatzeko amaitu dute.
- » Bertako basoa leheneratzeko beharrian larria azpimarratu du Kolore Guztietako Basoak plataformak.
- » **JULEN VILLASANT:** "Ausardia administrazioak izan behar du"

turatik Hurbileko Basogintza proposatu dute, berau uste baitute dela produkzioa eta kontserbazioa hobekien uztartzen dituen metodoa: bioaniztasuna zaindu eta egurgintza bertoko basoarekin egitea ahalbidetzen duena, Europako hainbat herrialdek ziurtatu duten eran.

Jabego pribatueta basoei dagokienez, zuhaiztien %76,24 osatzen dutela kontutan hartuta, bertan egiten denak garrantzia izango du ezinbestean. Hori horrela, Kolore Guztietako Basoak plataforma prest agertu da Naturatik Hurbileko Basogintzaren aldeko apustua egin nahiko luketen eremu pribatueta jabeei aholkularitza emateko. Hala ere, argi utzi dute ardura Aldundiak daukala eta honi dagokiola bai lursailak erosi eta leheneratzea, bai era horretan jarduteko prest leudekeen ugazabentzat diru-laguntzak eskaintzea. Laguntzak urte amaierarako eskuragarri egongo direla aurreikusten dute.

Gainerako neurriei dagokienez, Aldundiak orain arte erakutsitako jarrera eskatzat jo eta lanean jarraitu beharra azpimarratzen du plataformak. "Beste modu batean ekoizten saiatu beharra daukagu (...) beste toki batzuetan egin da eta beraz, posible da", ziurtatu du Villasantek. Herriz herri dabilta proposamena ezagutzera ematen, eta Atxondo, Ea eta Bakioko udalerriak, adibidez, bide horretan lehen pausuak ematen hasiak direla aurreratu dute. ■

MINGAINA DANTZAN KANPALDIA

Gaztetxoek euskaraz gehiago egiteko erremintak esperimentatzen

2017ko uda, Mundaka. *Mingaina dantzan* udalekuak antolatu zituzten Eusko Jaurlaritzak, Ebete hizkuntza-aholkularitza enpresak eta Ttakun Kultur Elkarteak. Helburua: 13-14 urteko gaztetxoek euskaraz ahalik eta gehien egitea. Baziren beste bi helburu ere: nerabeek ondo pasatzea eta erabilera areagotzeko tresnen baliagarritasuna probatzea. Nerabeak poz-pozik itzuli ziren etxera eta antolatzaileek esperimentua errepikatzea erabaki zuten. Uztailean Berrizen elkartuko dira gaztetxoak eta begiraleak.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: MINGAINA DANTZAN

Alaia Azkue zumaiarra da, Oikia auzoan bizi da eta 14 urte bete berri ditu. Inoiz udalekuetara joan gabea zen, baina iaz, gurasoen bultzadaren beharrik gabe, izena eman zuen *Mingaina dantzan* udalekuetan. Beretzako modukoak zirela iruditu zitzaion: “Euskara bultzatzeko zirela esan ziguten, euskaraz asko egiten ez zuten gazteekin elkartuko nintzen [eremu ez euskaldunetako nerabeak], eta haiei laguntzeak ilusioa egiten zidan. Haiek eskolan euskaraz egiten dute, baina etxean ez”. Ikaragarri ondo pasa zuen, dena gustatu zitzaion: begiraleak, jarduerak, Mundaka, lo-lekua, eta denek ondo pasatzeko zeukaten gogoia. Euskaraz bizi denez, udalekuetan zenbat euskara egin zuen galdetu diogu: “Begiraleek beti euskaraz egiten zuten. Horren ondorioz guk denok euskaraz erantzuteko joera geneukan. Herri euskaldunetatik joan ginenok euskaraz egiten genuen eta herri ez euskaldunetakoek euskaraz egiten ziguten. Ez zeuden ohituta eta batzuetan hitzak ez zitzaizkien ateratzen, baina saiatzen ziren. Beraien artean batzuetan gaztelaniaz egi-

ten zuten”. Zumaiarra poz-pozik dago, aurten berriz doalako eta iaz lagun egin zuen barakaldarrarekin beste hamar egun pasatzeko aukera izango duelako.

Gurasoak ez ziren bultzatzaileak izan, baina segituan ulertu zuten alabarentzako udaleku oso egokiak zirela; udalekuak eta euskara, biak batera. Iñigo Azkue aitak hala dio: “Gurasoontzat sozializazio modu bat zen, ez hainbeste euskara kontua. Baina ohartzen gara Alaiak euskaraz bizi nahi duela, beraz udalekuak aproposak ziren”. Maria Pilar Etxabe amaren ustez, begiraleek lan bikaina egin zuten, berak hala jaso du alabak kontatutakotik: “Euskara motibatzailerak erabili zuten, jolasgarria. Beraiek hurbilekoak eta maitagarriak ziren”.

Mari Karmen Fernandez Barakaldon bizi da. Oier semeak D ereduan ikasten du. Udalekuen berri eman zion semea eta ez zuen konbentzitu beharrik izan. Amaren ustez, udalekuek abantailak baino ez zituzten. Arreta deitu zion euskara eta aisialdia lotu izanak. Oierrek ez zioen aurpegi txarrik jarri udalekuetan euskaraz hitz egitea helburuetako bat

zela jakin zuenean. Etxean gaztelaniaz egiten dute. Oier etxera oso pozik itzuli zen, eta aldarte hartaz gain hurrengo hilabeteetan semea bestelako jarrera bat ere antzeman zion amak: “Euskara maiteagoa zuen. Ordura arte ikastetxean euskara ‘paketea’ zen beretzat, baina ikasturteko lehen hilabeteetan bestelako maitasunez landu zuen euskara, nahiz eta hilabeteak pasa ahala gogo hori ahuldu zen. Irudipena daukat begiraleek lan bikaina egin zutela, hizkuntza eta ondo pasatzea uztartzea lortu zuten”. Aurten ere badoa Oier Berrizko udalekuetara.

Ez da barnetegia

2017ko kanpaldian erabilera neurketak egin zituzten, baina antolatzaileek garbi zuten helburu bakarra ez zela euskararen erabilera areagotzea, erabilera bultzatzeko baliagarriak diren baliabideak eta tresnak garatu eta frogatu nahi zituzten.

Eremu euskaldunetako eta eremu ez euskaldunetako 13-14 urteko gaztetxoak elkartu zituzten. Lehenengo tal-



dekoentzat bi helburu zituzten: gaztelaniaz egiteko joera zutenekin euskara mantentzea eta beraiek hizkuntza ohituraz izan dezaketen eraginaz eta garrantziaz jabetzea. Bigarren taldearentzat beste bi helburu: ahalik eta denbora tarte luzeenetan euskaraz egitea eta euskaraz bizipen positibo indartsuak izatea. Bi eremuko gazteak nahastean arrisku bat zegoen: batzuek euskara askorik ez erabiltzea eta beste batzuek inoiz baino gehiago hitz egitea gaztelaniaz. Udalekuen ardatza euskara zela argi utzi zieten nerabe eta gurasoei egitasmoaren aurkezpen bileran. Beste gauza bat ere argi utzi zieten: ez zen barnetegia, udalekua baizik.

“Hezitzaile berritsua”

Begiraleek praka bete lan izan zuten. Helburu nagusietakoa zen erabilera areagotzeko tresnak praktikan jartzea eta haien baliagarritasuna frogatzea. Oso neurtuta zuten eremu formaletan eta informaletan nola jokatu, egunean-egunean zein jolas eta dinamika erabili, gaztelaniarako joera gailentzen

zenean zein mekanismo erabili euskarara itzultzeko. Era honetako jokoak erabili zituzten: Sua, Pareko, Story cubes, Argi beltza, Hitz kateak, Emotikonoak hitza jarri, Hau ez da nirea, Mc Gyberren gynkana... Erabilitako jolas asko hizkuntzari lotuak ziren. “Hezitzaile berritsuaren” figura asko erabili zuten, hau da, figura horrek gaztetxoaren artean esku-hartzeak izaten ditu elkarrizketetako hizkuntza bideratzeko. Begiraleek ez dute esaten “euskaraz hitz egin” edo antzekorik, zeharkako estrategiak darabiltzate.

Baina euskaraz gehiago egin zuten ala ez?

Hamar eguneko tartean egindako hiru erabilera neurketek baietz diote. Elkarriketen ia %70 euskaraz. Neurketari dagokion garrantzia eman behar zaiola azpimarratu digute antolatzaileek, oso xumea eta mugatua delako. Nerabeek udalekuen bukaeran egindako balorazioak arreta handiagoz jarraitu zituzten. Bata, deigarria: eremu ez euskaldunetako hainbat gaztetxok esan zuen ohikoan

Gaztetxoak iaz Mundakako paraje ederretan. Aurten Berrizen izango dira, bi txandatan, eta nerabe batzuk iazko berberak dira. Lehenengo txandan eremu euskaldunetakoak eta ez euskaldunetakoak (lehen taldekoak gehiago) izango dira nahasian eta bigarrenengo txandan ama hizkuntzari erreparatuko diote.

baino askoz gehiago edo inoiz baino euskara gehiago erabili zutela hamar egunetan. Batek hala esan omen zion begiraleari, sekula ez zuela hainbeste euskara hitz egin. Begiraleak berriz bere golgorako: “Bera da bada udalekuetan gaztelania gehien hitz egin duena!”. Begiraleak badaki ordea nerabearen esanak nolako balioa duen: euskaraz asko egin duen pertzepzioa du eta gainera azken eguneko balorazio unean esan du ikaragarri ondo pasa duela eta berriz joango litzatekeela udaleku berera.

Uztailean Eusko Jaurlaritzak, Ebete enpresak eta Ttakun Kultur Elkartek euskararen erabilera areagotzeko erremintak fintzen jarraituko dute. ■



Haziak ura hartzean barruan loak hartuta bezala dagoen energia esnatu eta mugitzen hasiko da; era berean hazia uhanditu eta azala zartatuko da, ernamuina hozitu eta erraz atera dadin. Ernamuinak sustraia emango du, eta horren lana ura topatzea izango da.

Hozitzeko urak



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

ARGAZKIA: AGRICULTORES.COM

Baratzezain batek galdetu berria dit: lurra ondo zanpatzea garrantzitsua al da haziak ereiten ditugunean? Erantzuna baiezkoa da, sumatzen zuen... Landareek urarekin duten lotura izugarria da. Jaiotzatik behar beharrezkoa dute. Haziak urik gabe ez du berehalakoan landarerik sortuko.

Hazia landarea sortzeko asmakizun izugarria da. Laburbilduta, azal batean bildutako begi edo ernamuin bat da hazia, maiz energia erreserbaz osatua. Ernamuina eta energia biak lo daude, eta, ernatu edo hozitu eta landarea sortzen hasteko, ura hartu behar du. Beraz, landareen sortzeko momentua ura

hartzeko aukerari lotua da, gehienetan. Horrexegatik haziaren inguruko lurra zanpatzearena. Lurra haziaren azalari estuki itsatsita badago, lurra daukan ura har dezake haziak. Haziaren inguruan lurra harro badago, nekezago hartuko du ur hori.

Haziak ura azaletik hartuko badu, ura eskuera behar du. Eta azala pronto. Azal gogorak, ahulak, meheak, lodiak denetatik topatuko dugu haziaren. Landareek fruituak edota haziak animalientzako erakargarri egiten dituzte, jan ondoren hedapen eta ereintza lanak egin ditzaten; animalia horietakoren batek jan –gehlenetan hegaztia– eta bere digestio hoditik igaro ondoren, haziak azala kraskatua izango du, ura sartzeko pronto. Helburu berarekin, zenbaitetan azala geuk karrakatuko dugu, ura errazago sar dakion. Ura hartzean barruan

loak hartuta bezala dagoen energia esnatu eta mugitzen hasiko da; era berean hazia uhanditu eta azala zartatuko da, ernamuina hozitu eta erraz atera dadin. Ernamuinak sustraia emango du, eta horren lana ura topatzea izango da. Ur horretan urtuta ekarriko ditu landarea hazteko beharko dituen jakiak, sustraia- ren ondoren gorunzko puja emanez luzatuko den kimutxoa edo plumula elikatuko dutenak.

Ur premiaren jakinaren gainean izanda, hasierako galderara bueltatuta, haziak ereindakoan inguruan duen lurra zanpatzea garrantzitsua da. Beste batzuetan haziak lurrean erein aurretik uretan edo urasetutako paper edo oihal batean itsatsita edukitzen dira, hezetasuna barneratzen hasi eta hozi daitezzen. Eta ondoren lurrera, ur soila ez baita nahikoa... ■



Ramon Rubial Lorategi Botanikoan dago Barakaldoko Natur Gela.

“BABESTU LANDARE BAT” EKIMENA

Ikasleak landareen zaintzaile



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: BARAKALDOKO NATUR GELA

Barakaldon bada hiriari arnas ematen dion gune berde bat: Ramon Rubial Lorategi Botanikoa. Lorategiaren eta Barakaldoko Natur Gelaren arteko elkarlanetik sortu da “Babestu landare bat” ekimena. Hiriko eskoletako ikasleekin landareen eta horien hazkuntza prozesuaren gaineko jakintzak lantzea da ekimenaren asmoa, eta ikasketa hori modurik praktikoenan emanen dute: ikasleak beraiek izanen dira landareak landatu eta zainduko dituztenak.

Jakin-mina pizteko hezkuntza proiektua

Urtean zehar Lorategi Botanikora bisi-tak egiten dituzte lehenagotik ere Barakaldoko eskoletako ikasleek, baina aurtengo nobedadea izanen da parkean zehar landatzea eta landatutako horiek zaintzea. Lorategiko lorezaintza taldearen laguntzarekin egingen dute. Eki-men berriak ikasleek landareak identifikatzen ikasteko aukera emanen diela uste dute antolatzaileek, eta eurek jarritako landare eta zuhaitzak hazten

eta loratzen ikusteak jakin-mina piztu diezaiekeela.

23 ikasle talde izango dira hilabetean zehar landaketak egiten arituko direnak. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak izanen dira. Natur Gunetik azpimarratu dute eskolarekin ez ezik, lorategia espazio irekia izanik, ikasleak eurek landatutakoa ikustera joan daitezkeela gerora euren kabuz, lagunekin edo familiarekin.

Natur Gela eta Lorategi Botanikoa

2014az geroztik martxan, ikasleentzat nahiz herritar ororentzat ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin lotutako ekimenak eta proiektuak antolatzen dihardu Barakaldoko Natur Gelak. Eraikina bera ere material jasangarri dago eraikia –egurrez eta kristalez–, eta bioklimatikoa eta ekoefizientea da.

Natur Gelaren beste aberastasun nagusia bere kokapena da: Ramon Rubial Lorategi Botanikoaren barruan dago. 2002an zabaldu zituen lorategiak ateak, eta bere 60.000 metro koadroko lursailen mundu osotik ekarritako 300 espezie baino gehiago dituzte landatuta. Ikasgela polita eskoletako ikasleekin antolatu duten ekimena aurrera eramateko. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Ekainak 23: Hendaia

Geologia ikasteko irteera: Vernako osina eta Holzarteko zaldaina. Denentzat egokia. Prezioa: 10 euro. Hitzordua izena ematerakoan zehaztuko da: cpielittoralbasque.sig@hendaye.com.

Ekainak 23: Auritzberri

“Erromatar galtzada” ibilaldi gidatua. 10:00etan hasita, Urrobiko kanpinetik.

Ekainak 23: Donostia

Zuhaitz zaharren intsektu enblematiko eta mehatxatuak ezagutzeko ikastaroa. 10:30ean Uliako Parkeko aparkalekuan.

Ekainak 23: Leizta

Herri baratzeetara bisita gidatu didaktikoa Jakoba Errekondorekin. 11:00etan herri baratzeetan. Ondoren bertako produktuekin egindako pintxoak Karrapen.

Ekainak 23: Amoroto

Jakoba Errekondoren kontsultategia. 18:00etan Kultur Etxean.

Ekainak 24: Urduña

San Juan Azoka, Foru Plazan. Baserriko eta artisautzako produktuak eta gadenaren salerosketa. Euskadiko Behi Xarolesen XVI. Lehiaketa.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

azoka

NOLA SALDU ZURE GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala. Bost minutuan jar dezakegu edozer salgai Interneten, euskal herritar denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko kideei zer bait eman nahi izanez gero, badugu aukera. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka • [@argiaAzoka](https://twitter.com/argiaAzoka)

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

87
salgai

GORA KAT-EN MOTXILA

Gora Kat-ek artisau eran egindako poltsak. Ez ditu bi poltsa berdin sortzen.

Tapiztegietako oihal estanpatuekin egiten du lan, olanarekin eta kolore bakarreko zein irudiz zipriztindutako ehunarekin. Horiez gain, modelo batzuetarako egileak marraztu eta jositako brodatuak ere egiten ditu.



90 euro

Ekainaren 21ean, 10:00etan, **ARGIA Jendearentzat musutruk** jarriko ditugu:

30
gai
musutruk



Bizi Baratzea lamina 7 eta 8

Joseba Larratxek eta Mattinek eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.



Biezko Baserria (Axpe)

Bi lagunentzako asteburu-pasa.



Hormigoizko zuloan ernetako loreak



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Zuloan liburuaren azken aurkezpena egin du Urko Apaolaza egile eta ARGIA-ko kideak Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, ekainaren 5ean. Bospasei hitzaldi eman ditu guztira, Euskal Herriko lurralde ezberdinetan, hainbat talderekin elkarlanean: Manu Robles Arangiz Fundazioa, ustelkeriaren kontrako Adi! elkarte, gaztetxeetako jendea... Gaurkoan kazetaria bera da elkarriketatu.

Zer moduzko harrera izan dute liburuak berak eta hitzaldiek?

Esango nuke gaiarekiko interesa dutenen artean harrera ona izan duela. Abiadura Handiko Trenaz asko hitz egin eta idatzi izan da azken hamarkadotan, baina azpiegitura erraldoi horren ikuspegi laborala kontatzen duen lehen liburua da. Gainera, ikerketa egin bitartean *Zuloan* bloga erabili dugu informatzeko, bertan azaldu ditugu langileen esplotazio kasuak, eta horrek ere liburuarekiko jakinmina sortu duelakoan nago. Bestalde, ELAk ikerketa honen ondorioak publikoki salatu ditu eta liburua bidali zien Eusko Jaurlaritzako eta aldundietako arduradun nagusiei,

Iñigo Urkullu lehendakariari barne, eta jakin badakit jaso duela. Alde horretatik oihartzuna handia izan da.

Hitzaldietan jendetxoa bildu da eta esango nuke profil ezberdinekoa izan dela. Alde batetik AHTren kontrako mugimenduan sartuta ibili direnak eta bestetik sindikalgintza mundukoak.

Azken aurkezpena berezia izan da?

Ekainaren 5ean aurkeztu dugu, Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, ELAk Nazio Kontseiluarentzat antolatutako mintegian. 200 lagunetik gora bildu gara eta zirrara ere sortzen zuen, batez ere Ainhoa Intxaurrendietaren ondoan hitz egiteak (*Angula Ustelak* hitzaldia eman zuen Igor Meltxorrekin batera): berak eta Iñaki Errazkinek bizi duten egoera mendeku hutsa da, garbi geratzen da AHT edo erraustegia bezalako azpiegituren atzean dagoen negozio itzela.

Horrelako beste zerbaite egitea baduzue buruan?

Liburu honekin argitalpen ildo berria hasi dugu ARGIAN, eta ez da azkenekoa izango. Esaterako, Manu Robles-Arangizekin hasitako lankidetzari esker Onintza Iruretak Bizkaiko zahar egoitzetako grebalariei inguruko lana egiten dihardu. ■

AGENDA

ALTERNAKTIBA: Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen Azoka

- Ekainaren 16an, 11:00etan hasita Andoainean, Juanita Alkain plazan. 12:00etan Cristina de la Cruzen (EcoSolFem) hitzaldia izango da.

Garaipen txikien bidez Euskal Herria burujabe mintegia

- Manu Robles Arangiz Fundazioak antolatuta, ekainaren 21ean (osteguna) eta 22an (ostirala) egingo da Gasteizko Letren fakultatean, 9:30etik 14:00etara. Alternatiben artean azalduko dira Katakarak, Alternatiben Herria, Koop57, Olatukoop, ARGIA eta REAS.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Azoka

- Ekainaren 23an, 10:30etik 14:00etara Donostiako Gros auzoan. Bertan izango da ARGIA ere.

IV. Ekonomia Solidarioaren Azoka

- Ekainaren 23an, Gasteizen, El Campillon.

Ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek kudeaketa: printzipioetatik errealitatera ikastaroa

- UEUk antolatuta, ekainaren 26an (asteartea) eta 27an (asteazkena) izango da Iruñean, Ezpeleta Jauregian, 9:00etatik 17:00etara. Tartean, esperientzia hauek azalduko dira: Goiener, Laboral Kutxa, Elhuyar, Talaios, ARGIA, Lakari, Ikastolen Elkartea... Matrikulazioa zabalik dago www.ueu.eus helbidean.

Balioak eta nortasuna euskal gizartearen eraikuntzan: berrikuntza-plataforma irekiak ikastaroa

- EHUK antolatuta, uztailaren 16 eta 17an izango da Donostian, Miramar Jauregian, 9:00etatik 14:00 aldera arte. Esperientzia hauek azalduko dira: Elhuyar, ARGIA, Ikastolen Elkartea eta Elkar. Matrikulazioa zabalik dago www.uik.eus helbidean.

KANADA ETA DANIMARKA “GERRAN”



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Nares itsasartea, 1871-1873. Charles Franci Hall esploratzaile estatubatuarak hirugarren espedizioa egin zuen Ipar Polora. Bidean 1,3 km koadroko uhartetxo bat topatu zuen Kennedy kanalaren erdian. Espedizioan Hans Hendrik izeneko itzultzaile inuk bat zeramaten eta, haren omenez, Hans izena jarri zioten lur puskari –nahiz eta benetako izena Suersaq zuen–.

1933an Nazioarteko Justizia Auzitegi Iraunkorrek Groenlandia legalki Danimarkarena zela deklaratu zuen. Froga geologikoak argudiatuta, Danimarkak Hans uhartea ere haiena zela esan zuen.

1972an Kanadako Zerbitzu Hidrografikoak eta Nares itsasartean lanean ari ziren ikerlari daniarrek Hans uhartearen koordinatu geografikoak zehaztu zituzten. Eta hurrengo urtean, 1973an, Danimarka eta Kanadaren arteko iparraldeko mugei buruzko negoziazioetan, Kanadak Hans uhartea beren lurraldearen barruan zegoela aldarrikatu zuen. Baina negoziazio haietan ez zen gobernuen arteko akordioarik itxi uhartearen inguruan. 1983an bi herrialdeek akordio bat sinatu zuten eremu haietan ingurumena zaintzeko, eta Hans uhartearen ikerketak elkarlanean egiteko aukera eztabaidatu zuten, baina ez zuten ezer sinatu.



1984an Høyem daniar ministroa helikopteroz iritsi zen uhartera eta bere herrialdeko bandera jarri zuen. 1988an eta 1995ean antzeko keinuak egin zituzten daniarrek. 2005ean Kanadako Defentsa ministroak irla bisitatu zuen eta, horri erantzunez, Danimarkako Kanpo ministroak adierazi zuen lur zati horren inguruan ez zegoela inolako tirabirarik, uhartea, zalantzarik gabe, daniarra zelako.

Orduraz geroztik, Kanada eta Danimarkaren arteko “gerra” horretan tradizio bitxia sortu da. Urtero, abuztuan, kanadar tropak uhartearen lehorreratzen dira, Danimarkako bandera kentzen dute, Kanadako jarri, eta whisky botila bat uzten dute mezu batekin: “Ongi etorriak Kanadara”. Udaberrian daniarrek zapal-

Hans uhartea Nares itsasarteko 1,3 km koadroko lur zatia da. Uhartearen jabetzak gatazka bitxia sortu du Danimarka eta Kanadaren artean. INSH

tzen dute irla. Beren bandera atzera ipini, whiskia edan eta *schnapps* pattar botila bat uzten diete arerioei, beste mezu batekin: “Danimarkako lurraldean zaudete”.

Hala ere, itxuraz baliorik ez duen lur zatia Ipar Mendebaldeko Itsasbidearen erdian dago. Merkataritza bide honek ez du orain arte ia trafikorik izan, baina klima aldaketak Asia eta Ipar Amerikaren arteko garraibide nagusietakoa bihur dezake eta Hans uharteak bidearen kontrola erraztuko du. Bati baino gehiagori txantxetarako gogoa joango zaio orduan. ■



STEFANO BENAZZI / AMERICAN JOURNAL OF PHYSICAL ANTHROPOLOGY

Duela 13.000 urteko odontologia

Irudian ikusten direnak, duela 13.000 urteko gizaki baten ebakortzak dira, eta Goi Paleolitoaren amaieran praktika odontologikoak egiten zirela erakusten dute. Riparo Fredian aztarnategian (Toskana, Italia) aurkitu zituzten, hartz-interbentzioen arrasto oraindik eta zaharragoak dituen Villabrunako aztarnategitik gertu (14.000 urte). Bai-

na Riparo Fredianeko hortzek besteez eman ez dituzten xehetasunak eskaintzen dituzte: hortzok *ante mortem* zulatatu zituzten, harritzko edo hezurrezko tresnak erabiliz, eta zuloak betun konglomeratuz, zuntz begetalez eta, ziurrenik, ilez bete zituzten, Neolitikoa baino lehen ere praktika biomedikoak egiten ziren seinale. ■



Iruñeko Auzolan liburu dendak aurten itxi ditu ateak. Dendaz gain, Bitarte banatzailearen ibilbidea ere bukatu da, Elkarrek erosi baitu. Tamaina ertaineko banatzaile hori desagerturik, monopolio egoeratik gertu geratu da liburuaren banaketa Euskal Herrian.

IÑIGO URIZ / FOKU

Liburu dendak independenteak

Nola eutsi azken lubakian

Hiru urtean, erreferentziazko hiru liburu dendak itxi dituzte Iruñean. Bakoitza arrazoi desberdinengatik, baina motibo ekonomikoak tarteko hiru kasuetan. El Parnasillo aurrena, Gómez gero eta berriki Auzolan, 40 urteko ibilbidearen ostean. Azken hori ixteko arrazoi gisara aipatu zituen Mertxe Zufia bertako kideak "liburu-merkataritzan gertatzen ari diren aldaketa bortitzak eta azkarrak". Zeintzuk dira, ordea, aldaketa horiek? Eta panorama horretan, zer egin dezakete liburu dendak txikiak?



Kepa Matxain
@kmatxain

Liburu denda batek independentziari eusteko ezinbesteko baldintza du banatzaile askorekin lan egitea, Iruñeko Katakrakeko German Esparzaren iritziz. “Oinarrian, gaitasun ekonomikoa dago. Banatzaile bakarra edukitzea erosoagoa da –denda txiki askok hala daukate–, azpiegitura errazten dizute, lan gutxiago egin behar duzu eta batzuetan, baldintza ekonomiko hobeetan uzten dizkizute liburuak. Baina guztiz menpeko zara: kudeaketa programatik hasi eta bestelako edozein negoziatziora arte”. Katakraken, esaterako, lan egiten dute hamabi banatzaile handirekin, hamabi ertainekin eta 300 txikirekin –kolektiboak zein autoedizioak–.

Donostiako Kaxildan ere antzera pentsatzen dute. Berriki erregistratu dute kudeaketa programan 511. banatzailea. Guztira 1.251 argitaletxe agertzen dira beren datu basean. Dario Malventik azaldu duenez, apustu garbia egin dute: banaketa alternatiboa bihurtu nahi dute ikusgarri, banaketa komertzialaren aldean. “Dendako zazpi mila liburuaren artean ez dago *best-seller* bakar bat ere. Gure funtsaren mugak muga, liburuaren industria komertzialari iskin egitea lortu dugu. Orain, banaketa independentearen sarea indartzeko baldintzak sortzea tokatzen da”. Independentzia horretan sakontzeko, giltzarria izan zen orain urte batzuk iritsi zitzaizen enkargua. Artelekuo liburutegian uholdeak izan zirela-eta, bertako funtsaren zati bat errekuPERTAZKO eskatu zieten. Hala barneratu ziren liburu deskatalogatuz eta agortuz osatutako “mikrokosmos” batean, eta ezagutu zituzten bildumagileak, galeriak, museoak eta Amazoneko espekulatzaileak. “Liburuaren boterearen genealogia hari esker ikasi genuen banatzaile komertzialen trikimailuetan ez erortzen, eta horregatik ez dugu amaitu itota edo salduta, beste liburu denda batzuek bezala, astero apalategiak gainezkatzan dituen gehiegizko produkzioa garaiz ez geldiarazteagatik”. Ekainean, bazkide kanpainari jarriko dute martxan. Urtero kuota bat ordainduz, banaketa alternatiboan egiten duten gastuari eustea dute helburu. “Behar adina bazkide lortuz gero, posible izango dugu funtsa zabaltzea eta egonkortzea. Gainera, nahi dugu Kaxilda babesten duen jendeak babes ditzala hornitzen gaituzten banatzaileak ere”.

Duela bi urte eta erdi ireki zuen Deborahlibros liburu denda Iruñean Katixa

Castellanok. Zazpi banatzailerekin egin du lan orain arte, Espainia mailako seirekin eta nazioarteko batekin. “Zenbait banatzailek arazoak jarri izan dizkidan liburuak deposituan eskatzean, esanez ez dutela halakorik egiten dendak bi urte bete arte. Ohartu naiz, era berean, banatzaile batzuek ez dutela berdin jotzen liburu denda handiekin eta txikiekin, arrazoi ekonomikoak tarteko”. Dena dela, konplexua iruditzen zaio banatzaileen panorama. “Eguneratu beharra daukate, aurre egiteko 24 ordutan etxeko atarira liburu bat eramaten dizuten Amazonen gisako munstroei. Batzuk hasiak dira entrega-epeak azkartzen eta modu eraginkorrean funtzionatzen, baina era berean, irudika dezaket esfortzu hori langileen bizkar joango dela. Ez da batere gai erraza. Beste eremu askotan bezala, oihaneko legea da nagusi, harpakari indartsuenak irabazten du”.

Katakrakeko Esparzak esperientzia handiagoa du liburuaren munduan Castellanok baino. Orain hamar urte hasi zen, eta iruditzen zaio azken hiruzpalau urteetan ziklo amaiera bat gertatzen ari dela. “Orain arte banatzaile ertainak posible ziren. Oso bestelako harremana izan dute liburu dendekin: gordailuak egin dituzte, konfiantzan oinarritu dira. Baina irudipena dut halakoak desagertuko direla epe ez oso luze batean, eta aldaketa handiak datozela”.

Bitarterenak egin du

Banatzaile ertain horietako bat zen berriki desagertu den Bitarte. Elkarrek erosi du orain. Auzolan liburu dendaren itxierak, gainera, zerikusi zuzena du operazio horrekin, denda Bitarte banatzailearen parte baitzen. Gauzak horrela, Elkarrek zati bat gehiago kendu dio pastelari, eta banatzaile nagusi gisara sendotu da Hegoaldean. Esparzaren ustez, liburu denda txikiei eta ertainei eragingo die batez ere mugimendu horrek. Castellanok, berriz, berari horrek zertan eragingo dion galdetuta, hala dio: “Hori da auzoko burdindegia bati Leroy Merlini buruz galdetzea bezala. Bi negozio eredu desberdin gara”.

Kaxildatik ere sarritan kritikatu dute “euskarazko liburuaren banaketak bizi duen monopolioa”. Malventiren irudiko, Elkarren jokaldiak enpresaren logikari erantzuten dio, eta egun duen merkatu-konpetentziaren baitan ulertu behar da, Donostian ireki duten Casa del Libro



ahaztu gabe. “Askotan eztabaidatu dugu Elkarrekoekin hemengo argitaletxe ekologian duten inpaktuaz. Ezin diogu uko egin beraien banaketari, euskarazko ekoizpen osoa –eta ez hori soilik– haien sarearen menpekoea delako. Baina inoiz ere ez gara Elkarrekin elkartu, itxuraz independenteak izan arren liburuak baldintza berezietan lortzeko haiekin akordioak dituzten beste proiektu batzuk bezala”. Bitarte desagertzea arazo handitzat du Malventik, “Elkarren monopolioa handitzen duelako eta gertuko proiektu batzuk –Katakra, kasurakohaien baldintzen menpe jartzen dituelako”. Aldiz, iruditzen zaio Kaxildari ez diola eragingo, orain arteko bide beretik jarraitzen badute: nahi ez dituzten liburuak baztertuz, eta bazkide sare baten bidez enpresa handien funtzionatzeko modutik ihesean jarraituz.

Amazon garaiak

Liburu denda txikientzako diru-laguntza falta sumatzen du Castellanok. “Adibidez, Bartzelonan badira, eta hemen ez”. Esparzak, berriz, beste bi mehatxu



Amazon multinazionalaren Espainiako banaketa-zentroa ikus daiteke irudian. Denden eta banatzaileen kaltean eskaintzen ditu plataforma erraldoiak eroslearentzat prezio onak.

ALVARO IBÁÑEZ / CC-BY

nagusi ikusten ditu: batetik, *online* salmenta egiten duten korporazio handiak. Bestetik, banaketa ereduak gertatzen ari diren aldaketak. Haren ustez, musikagintzak ez bezala, liburuak ez du eredu aldaketarik jasan afera teknologikoa-rengatik. “Liburuaren eta liburu denden etorkizunak lotura handiagoa du banaketarekin: agian hamar urtean ez da liburu dendarik eta banatzailearik izango”. Harentzat, Amazon ez da banatzaile bat. “Ez dauka biltegiarik. Argazkietan ikusten ditugunak zentral logistikoak dira. Biltegiak beste batzuk dauzkate, eta Amazonek biltegi horiei eskatzen dizkie liburuak”. Hain justu, horixe da Esparzarren ustez Amazonen arrakasta ulertzeko gakoa: eroslearentzat baldintza onak dauzkala, jatorrizko denden edo banatzaileen kontura. “Adibidez, zuk musika entzuteko kasko batzuk eros ditzakezu. Amazonek banatzaileari eskatu eta zeuri bidaliko dizkizu. Zuk hamabost egunez erabil ditzakezu. Gero, argizariz zikinduta, doan itzul ditzakezu. Jatorrizko banatzaileak kasko horiek *jan* beharko ditu. Ezin ditu berriz saldu, manipula-

zioan eta bidalketan dirua gastatu du, eta ez du ezer irabazi. Banaketa eta bilketa erabat prekarizatzen ditu guztia eskura dezakeela salduz, nahiz eta ez den hala –*Fariña* liburuarekin nabarmen ikusi zen bezala–”.

Malventiren ustez, berriz, langileen eguneroko bizitza bidegabeki kontrolatzeak ezaugarritzen ditu Amazon garaiak. “Ez da Amazon soilik, Carrefour, Eroski, Mercadona, Zara, Ryanair eta beste enpresa askok erasotzen dituzte egunero langileen lan baldintzak. Liburuaren industrian ere aurrezkiaren logikan eta bezeroaren fidelizazioan jarduten dute enpresa handiek. Baina botere orok du bere erresistentzia, eta, kasu honetan, horixe gara liburu denda independenteok. Gainera, zerbait egiten dugu egunero: existitu egiten gara. Eta jende askok, liburu bat non erosi erabaki behar duenean, Kaxilda bezalako tokiak hautatzen ditu”. Seigarren urteurren festa ospatu dute ekainaren 2an Donostiako Guardetxean. Honakoa zen festaren leloa: “Ezinezkoa ematen duen arren, hemen jarraitzen dugu”. ■

» **GERMAN ESPARZA (KATAKRAK):**

“Banatzaile ertainek oso bestelako harremana izan dute liburu-dendekin. Baina irudipena dut halakoak desagertuko direla epe ez oso luze batean. Aldaketa handiak datoz”

» **DARIO MALVENTI (KAXILDA):**

“Ezin diogu uko egin Elkarren banaketari, euskarazko ekoizpen osoa haien sarearen menpekora delako. Baina banaketa independentearen sarea indartzeko baldintzak sortzea tokatzen da orain”

» **KATIXA CASTELLANO (DEBORAH LIBROS):**

“Ohartu naiz banatzaile batzuek ez dutela berdin jokatzen liburu denda handiekin eta txikiekin, arrazoi ekonomikoak tarteko”

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Tortura xuria



Aritz Galarraga
@aritzgalarraga

Kartzela, ez dakit inoiz utzi dion egoteari, baina hain modako dagoena, kasik urte oso eta askotarako tendentzia baten gisa. Euskarazko literaturari kasu eginez gero, hasieretatik dago, Etxepare bera Biarnoko hartara sartu zutenetik. Sarrionandiaren kasu, ez noski azken, bai segur aski paradigmatoraino. Eta hor badago tesi edo dena delako bat, euskal literatura eta kartzela lotzen dituen. Kartzelaren makurrena, ordea, bakartasuna.

Pasa direnek diote, bakartasuna, isolamendua, nahi gabe ere, izerdi hotza balitz bezala, azalean itsatsi zaigun terminologia. Bakartasun ez bilatua, ez desiratua, fabrikatik bakarzale garenok hainbeste maite duguna. Baizik eta derrigorra, autoritatearen baitakoa. Filipe Bidartek ezagutu zuen, IK talde armatuko ki-deak, Frantziako kartzeletan.

Eta liburutxo batean eman zuen berri, laburtu zituen bakartasunean pasa behar izan zituen bi urtetik gorakoak ("non legez ez den hiru hilabete baino gehiagorentzat atxikitzen ahal"). Bi urte bakartasunean, irakurrita, ez du asko ematen, akaso, hogeita lau orenetatik hogeita hiru zeldan, goiz eta arratsaldean promenade bana -ordu erdiko-, giza tratatu bakar funtzionarioen salutzazio ez bereziki espansiboak. Tortura xuria, alegia, bestelakoen aldean oharkabea baita. Hitzek ez dute transmititzen, ezin, barruan bakarrik dagoenak zer sentitzen duen. Baina, sinistu, liburua irakurri ahala zuk ere senti deza-kezu, atea ixtean, klanka, barruan bakarrik geratzen zarela, ezin

Bakartasunaz bi hitz

FILIFE BIDART

Txalaparta, 2004



Filipe Bidart (Baigorri, 1953).

DANI BLANCO



aterako zarenaren itolarria, lehen ordu-egunen noraeza. Gero pixkanaka egingo zara, harribotsetara, denboraren izari berrira, antsiak erabat sekula abandonatuko ez zaituen arren. Ez dakizu zer lasaitua hartzen den, denboragarrarena, irratitipi bat erosten ahal duelarik!

Bakartasunaren testigantza gordina, beraz, inoiz zuloan sartuko ez gaituzten esperantza dugunok (gauzak nola dauden ikusita, auskalo) bakartasuna, ez bilatua, ez desiratua, baizik eta derrigorra, zertan den ezagutzeko balioko diguna, inoiz zuloan sartzen bagaituzte (epaileak garda!), gidaliburu modura ere erabil genezakeena, superbibentzia kit bat bailitzan, baina, besteren gainetik, denik eta egoerarik kontrakoenean ere, erresistentziarako, duintasunerako, umorerako tarte badagoela erakusten diguna.

"Gizakia ez da bakarrik bizitzeko sortua". Fabrikatik bakarzale garenok ere fedea aldatuta bukatuko dugu irakurketa. ■

» KONTZERTUA

Asmo onak



Montserrat Auzmendi del Solar

Urte batzuk dira Opus Lirica elkarteak Donostian opera-denboraldi egonkor bat ezarri nahian ari dela. Pausoz pauso, espektakulu desberdinak antolatzen ari da elkarteak, eta benetan operaren beharra sortzen den hirian. Joan den martxoan Pucciniren *La Bohème* interesagarri bat eskaini zuten, eta oraingo honetan, hain ederra den Christoph Willibald Glucken *Orphée et Eurydice*-ren txanda izan da.

Benetan txalogarria da talde honen ahalegina, kontuan harturik honetarako diru-laguntza eskasa dutela. Baina, tamalez, diru-eskasia hori nahiko nabarmena izan da aldi honetan. Opera, berez, ikuskizun garestia da, oso garestia. Hain ikusgarria den espektakulu honek baliabide izugarriak behar ditu: orkestra, korua, bakarlariak, attrezzo-a, argiztapena, eszenografia... Eta, sukaldaritzan gertatzen den bezala, osagaiak primerakoak izan behar dira. Bestalde, ikuskizun hain konplexua denez, edo mirezgarria da edo penagarria. Horrelako saiakerentzat ez dago tarte handirik.

Ez dut esan nahi *Orphée et Eurydice* hau erabateko porrota izan zenik, baina igandekoa ikusita, ez doazela bide onetik esango nuke. Eszenaratze diseinuarekin hasiko naiz. Marta Eguiliorrek zerbait ausarta baina dotorea egin nahi izan du, eta, zoritxarrez, ez bata ez bestea. Berak esaten duen bezala, leku ilunak hartzea erabaki zuen, japoniar Butoh estetikatik eta espresionismo alemaniarretik hurbil. Ideia ona da, eta ziur nago Eguilior andreak, baliabide gehiagorekin buruan duen irudia lortuko zuela. Baina sado-maso ukitu sinple batean geratu zen. Eta ez bereziki elegantea.

Gluck-en *Orphée et Eurydice* opera

Opus Lirica Orkestra.
Zuzendaria: Lara Diloy.
DOZE Abesbatza.
Zuzendaria: Jagoba Fadrique.
Eszena zuzendaritza:
Marta Eguilior.
Bakarlariak: Matteo Mezzaro,
Ainhua Garmendia
eta Alicia Amo.
Donostiako
Victoria Eugenia Antzokia.
Ekainaren 3a.

rekin buruan duen irudia lortuko zuela. Baina sado-maso ukitu sinple batean geratu zen. Eta ez bereziki elegantea.

Musikarekin jarraitzen badugu, Opus Lirica Orkestra, Lara Diloyren batutapean, zatar-ki aritu zen. Kostata lortu zuten koruarekin behar den koordinazioa. DOZE abesbatzak, bestalde, lan gehiago egin behar du fintasuna lortzeko.

Agian okerrean Matteo Mezzaro tenorea izan zen. *Orphée*-ren rola handia geratu zen berarentzat. Ahots boteretsua du, hori egia da. Baina Ferrari kotxeekin bezala, horrelako makina ondo erabili behar da. Ahots kontrola falta zitzaion. Benetan larri ibili zen, bai agudoetan, bai koloratuetan.

Hori bai, Ainhua Garmendiak *Eurydice* zoragarria egin zuen, ondo-ondo abestuta eta interpretatuta. Eta Alicia Amo-k *Amour*-en rolean ahots garbi eta distiratsua erakutsi zuen. ■



Christoph Willibald Gluck
alemaniar musikaria
(Erasbach, Alemania, 1714
– Viena, Austria, 1787)

Enegarren kasualitatea



Irati Majuelo Itoiz

GORPUTZAK ERAKUSKETA

Egilea: Iosune de Goñi. Noiz: Uztailaren 1 arte ikusgai. Non: Iruñeko Cafe Cream-en.

Argazkigintza analogikoa, lomografia, *film soup*. Nork esanen zidan horrelako gaiei buruz ikasiko nukeenik kafetegi txiki batean. Zer hobe, gainera, mundu hori zure lagun batek erakustea baino. *Gorputzak* erakusketa Iruñera ekarriko zuela esan zidanean, ez nuen aukera galdu nahi izan Iosune de Goñirekin elkartzeko. Normalean ez da oso urrutira joan beharrik lagun artista bat topatzeko, bere obra publiko egiten duen lagun bat, ordea, ez da hain erraz aurkitzen. Harekin elkartzeko denbora falta eta aitzakia txar gehiegi izaten ditugu, gainera, gehienetan. Baina oraingo honetan 10 minutu baino ez nituen behar izan Iruñeko Donibane auzoko Cafe Creame-ira iristeko. Kafea goxo atera zigun kafe-tegiko langileak, igandea goxatu nahian. Zer gehiago eska daiteke?

Gorputzak aurkitu nituen paretetatik zintzilik. Ez ziren, ordea, gizakion gorputzen erretratu hutsak, ezta paisaia estatikoei egindako argazkiak ere. Izan ere, Iosunek gorputzak gizakietatik harago ulertzen ditu: zuhaitzak, iratzeak, marmokak, natura osatzen duen oro da

gorputz. Ez gara, baina, unitate bakar eta indibidualak, elkarri eragiten diogun bizidunak baizik. Bestea gabe, ez gara. Gure begiekin ikusten ditugun bukaeretatik harago, muga fisiko eta psikologikoak hautsi eta elkarren artean nahasten diren gorputzak gara, erre-pikatu, bateratu eta gainjartzen diren gorputzak. Horrela, eskuek eta iratzeek, besoek eta adarrek, begiek eta loreek, azalak eta urak bat egiten dute Iosuneren argazkietan.

Bertiz, Urbasa, Orgi. Nafarroako basoetan galtzen da Iosune, eta bertan aurkitzen du bere burua eta emakumeen gorputzen islada. Lurrarekiko eta gorputzarekiko dituen harremanak oso presente daude bere sorkuntzan, eta horiek bateratzen saiatzen da teknika berezi baten bidez. *Film soup*aren ideia pelikulak likidoren batekin interakzio kimiko bat izatean datza, lomografian ustekabeko efektua izan eta espero gabeko emaitzak lortzeko. Brigitte Bloom argazkilaria deskurbitzearekin batera ezagutu omen zuen teknika hau. Izan ere, *Float On* izeneko seriean Nevadan

(AEB) ateratako zenbait argazki txizarekin nahastu zituen errebelatzerakoan, eta ametsen mundukoak diruditen irudi harrigarriak lortu zituen. Sorkuntza prozesu honek esperimentazioa eta sorpresa ditu oinarri, ezin baituzu inoiz jakin zer aterako den egindako nahasketatik. *Gorputzak* serieak kolore more, berde, urdin eta larrosazko unibertsoa biltzen du bere baitan, eta hori lortzeko de Goñik te beltza, fruitu gorrien infusioa, gerezi zukua eta hilerokoa erabili izan ditu. Berak dioten bezala, behin eta berriz eta saiakera askoren ostean lortutako irudiak dira. Enegarrenez saiatutako kasualitateak, baina ez dutenak kasualitateen magia galdu.

Gernikako Astran eta Gasteizko Artgian aurkeztu ondoren, kosta egin zaio Iruñean erakusketa jartzeko espazio bat topatzea. Cafe Cream ez da areto handi eta famatua izanen, baina sortzaile handi bat gordetzen du bere pareta zurietan. Aukera baduzue hurbildu zaitezte, uztailaren 1era arte geratuko da zuen zai. Ondoren, batek daki zer kasualitatek elkartu zaitzaketen berriro. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

KARIAZ LETRA IZENA		PERTSONAIA- REN ABIZENA TORIOAREN SINBOLOA		ERDIZKA			UGAZTUN MOTA PERTSONAIA- REN IZENA		AUKERATU, HAUTATU EPAILEAK EZARRITAKO ZIGORRA		LURPEKO GARRAIOBI- DEA BEREKOI (NI)	
U HOLDE-UR OSMIOA							TXAPEL IKERKETA- LAN					
		PALADIOA MAITAGARRI			ELIKATU ZAIN, AIDURU		GAIN TONTOR BEDEREN					
AZKENGABE TXAKUR									LEHENGO OGERLEKO NAFARROAKO HERRIA			
				MAITALE OLIADURA EMAN						BIZKAIKO HERRIA ONDORA, ALDAMENERA		
LURRARENA ILARGIA DA	ARNAS EZAK HILA IRITZI, USTE				ITUAREN ERDIGUNEA (PL) GARRAIOBIDE PUBLIKOA							HERTSIA
							PILOTA ZIRKUITU ELEKTRONIKO MIKROSKO- PIKO					
AURPEGI, BISAIA AZERIA									DU, NIRI MUSIKA ESTILO			
					ZIZARE 40 ERRO- MATER ZENBAKIZ						10 ERROMATAR ZENBAKIZ NORI ATZIZKIA	
MODU ATZIZKIA ZOZOAREN FAMILIAKO TXORI			TXIKIAGO BIHURTZEN DUENA DEBYE									
							FRUTA TROPICALA					

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

6				7		4	
			5		1		
5	2			9	7		6
	7						
9	3			7		2	
			4	9	2		
			8			3	2
			6		4		
4	8			5	9		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Ezetza adierazi.
2. Baranda babesgarri.
3. Armiarma (bizkaieraz).
4. Setak.
5. Oihuka, garrasika.

Ebazpenak

Ulika.
Aramu, 4. Temak, 5.
1. Ukatu, 2. Karel, 3.

4	8	3	7	2	5	9	6	1
1	5	2	2	6	3	4	8	7
7	6	9	8	1	4	3	2	5
8	1	5	4	9	2	7	6	3
9	3	6	5	7	8	2	1	4
2	7	4	6	3	1	8	5	9
3	4	7	2	5	6	1	9	8
6	9	1	3	8	7	5	4	2
A	V	I	A	P	V	A	P	V
I	R	A	I	G	A	I	G	A
X	E	R	A	X	I	X	A	I
T	D	I	T	E	T	A	R	T
I	O	I	B	A	L	A	V	K
K	A	N	A	V	A	D	I	A
A	E	E	S	L	E	N	O	A
O	R	O	D	U	B	E	I	G
R	T	U	R	T	U	R	T	U
T	E	N	O	B				
E	N	A	V	K	E	N		
M	H	Z						

Beta Forn. Bidegabekeria errailetan



Pasa den azaroaren 2an Estremerako espetxean giltzapetu zuten Joaquim Forn Kataluniako diputatuaren alabarik gazteena da Beta Forn (Bartzelona, Herrialde Katalanak, 1998). Erizaindegi ikasketen bigarren ikasturtea amaitu berri duenean, Kataluniako ordezkari independentistek bizi duten errepresioaren kontrako borrokan murgilduta dago.

“Geroz eta gauza larriagoak gertatu behar dira jendea kalera ateratzeko”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

Familiaren sostengu

“Haserre nago, indartsu, baina oso haserre. Injustiziek min egiten didate. Betidanik izan naiz borrokalaria, baina, azaroaren 2az geroztik, Espainiako justiziak nire aita giltzapetuz gainjarri zidan testuinguruaren aurrean, borrokarako indarra atera dut lur azpitik. Nire buruari aitortu diot familia babesteko ardura eta, hogeitaz bete berri, egun batetik bestera ikasi dut arazoei garrantzia kentzen”.

Zazpi hilabete pasa dira zure aita giltzapetu zutenetik. Zer moduz zaude?

Gora-behera handiak izan ditut, desoreka emozionalak ez du etenik izan. Hilabete gogorra pasa dut, baina, borrokatzen jarraitzeko prest nago. Indartsu egotera behartuta gaude...

Zer izan da zailena hilabete hauetan?

Ziurgabetasunak akitu nau. Baina, aitortu behar dut, lagundu didala ulertzeak irtenbidea ez dagoela gure esku. Helburua orain nire familiak ere ulertzea da, ez baitu argi. Mugimenduren bat zegoen bakoitzean itxaropena izaten nuen hasieran baina, nire osasunaren mesedetan, jadanik galdu dut. Giltzapetu zituzten bezala utziko dituzte aske, hau ez baita prozedura judizial arrunta. Nahiago dut luzerako joango dela pentsatzea. Modu bakarra da guk geure burua babesteko.

Beste preso politikoen seme-alabak gaikoak izan omen dira bide honetan...

Hasieran obligazioz gelditzen ginen [dio irriz]. Ez genuen uste gerora josi genuen harremana sortuko zenik. Betiko lagunei kosta egiten zaie ulertzea, baina,

niretzat erabakigarriak izan dira zazpi hilabete hauetan. Funtsean, bizi dugun injustizia konpartitzen dugu, eta konplizitatea erabatekoa da.

Babesa bakarrik ez, erakusleio izan nahi duzue. Proiekturen bat baduzue eskuartean, ezta?

Testuingurua aldatzeko egitasmoak sustatzeko beharra izan dugu hastapenetik eta bota genituen ideien artean bati heldu genion. Independentistak izan gabe, giza eskubideen urraketaen kontra egon zitezkeen espainiar ospetsuen zerrenda osatu genuen, bideo bat osatu asmoz.

Zertan da orain?

Ez dugu gauzatuko. Deitu genituen ehun pertsonetatik hiruk esan zuten baietz. Eskaintza ukatu zutenen artean, gehien goaren arrazoia zen beldurra: testuingurua salatzen zutela, asko sentitzen zutela, baina euren lanpostuak galtzeko arriskuan zirela.

Espero zenuten erantzun hori?

Ez, oso etsigarria izan da. Bestelako aldarrikapenetan parte hartzen duten pertsonaia ezkertiarak bildu genituen



zerrendan, baina Kataluniak bizi duen injustiziarekin ez dira fitxarik mugitzeko gai izan. Nola da posible? Seguruena euren bustiko balira Espainiak ez luke orain bezala jokatu...

Erizaindegi ikasketak Estremerako espetxerako bisitekin uztartzen ari zara.

Egokitzapen prozesu bat egin dut honetan ere. Hasieran aita ikusteko beharra neurrigabea zen. Orain oreka lortzen saiatzen naiz: hileroko familia bisean biseko bisitetara joaten naiz bakarrik, kristalaren bestaldeko bisitak saihestuz. Gogorregiak ziren. Hotzak. Hein batean, oraindik ere, ezin dut nire aita pareta horien artean giltzapetuta dagoela sinetsi. Hain gertu zaude eta hain urrutiko aldi berean...

Zer-nolakoa izan da funtzionarioen alde-tik jaso duzun erantzuna?

Giltzapetzea zigorra bada bere horretan, familiok zigor bikoitza sofritzen dugu bisiten izaeratik. Hasieran zera zen gogorrena: kristalaren bitarteko solasaldietan bat-batean moztu dute la mikroa, alde aurretik abisatu gabe. Hain krudela eta gogorra zen hala agurtu behar izatea!

"Hasieran aita ikusteko beharra neurrigabea zen. Orain oreka lortzen saiatzen naiz: hileroko familia bisean biseko bisitetara joaten naiz bakarrik".

Espainiako justiziak dispersioa erabili izan du betidanik. Zure aita atxiloaldi prebentiboan egonik, zer deritzozu Madrilen egoteaz?

Dispersioa zigor gisa uler daiteke bakarrik, are gehiago atxiloaldi prebentiboan. Eskubideek berdinak behar lukete izan denontzat, ulertezina da Madrileraino joan behar izatea.

Espainian Mariano Rajoy erori eta Pedro Sanchez da orain presidente. Nola eragingo dio aldaketak Kataluniari?

Oraingoz ez dut aldaketarik antzeman, espetxeratuez hitz egin duenean, behintzat, eta argi dago Sanchez erreprezioaren erantzule izan dela. Hala ere, zentsura mozio bitartez iritsi da presidentetzara, hainbat alderdiren babesari esker. Beraz, behartuta dago keinuren bat egitera eta, ondorioz, ilusio gehiegirik egin gabe baina esperantza hor dago.

Edonola ere, Kataluniako espetxeetara ekartzea legeak biltzen duen eskubidea izan arren, nire borroka eta erronka aske uztea da.

Bitartean, Kataluniak mobilizatuta darrai. Beldurrik duzu gizarteak salbuespen testuingurua normalizatzeko?

Bai, noski. Dagoeneko nabaritzen dugu lehen egunetako euforia desagertu dela. Badirudi geroz eta gauza larriagoak gertatu behar direla jendea kalera ateratzeko. Batez ere, geure adinekoen artean. Hori oso gogorra da. Ezin dugu ahaztu jendea atxilotzen ari direla abestiak idazteagatik! Pentsatu nahi dut normala dela, eta mobilizazioaren beherakadak balio duela borrokari eusteko indarrak hartzeko...".

Kataluniako preso politikoak larrutik ari dira ordaintzen idealen defentsa. Merezki izan du?

Noski. Bestela ez guke dugun indarra izango. Eurak preso daude, baina badakite egindako bideak helmuga bat izango duela. Nik Espainian ez dut itxaropenik, baina, nazioarteko bilakatuz, geure erronka lortuko dugu! ■



Espainiaren aldeko golak lasai ospatzeko argudio-zerrenda

“Baina Iraitz, zer ostia egiten duzu Sergio Ramosen gola ospatzen?” galderak ez dizu gehiago loa galaraziko. Espainiaren aldeko golak libre eta burujabe ospatu nahi dituzula? Hemen da ahaleginean ez itotzeko behar duzun flotagai-lua: selekziorik gabeko lagun edo senide potrozorriaren argudioei fundamentuz erantzuteko zerrenda:

Espainiarekin etxeko jokalaria batek jokatzen du. Beragatik poztu naiz. / Futbol one-na eurek egiten dute. / Futbola eta politika

ez dira nahastu behar. / Frantses zikin horiek irabaztea baino hobea da. / Cristiano Ronaldok ez irabazteagatik, edozer. / Nire familiaren parte bat Gaztelakoa da. / Etxe azpiko tabernan azeitunak aterako dizkigute musu-truk. / Lopetegik euskal selekzioan jokatu du. / Bi euskal herritar Frantzia eta Espainiako entrenatzaile: urrats bat gehiago ofizialtasunerantz. / Espainiari buruzko albiste-uholdeak esan nahi badu Frantziako Tourra eta Xabier Usabiaga jasan behar ez izatea, ongietorria!

SAREAN ARRANTZATUA

Kaiolei buruzko liburu instituzionalak



Genizukun Serbitzuak



Euskalmet-ek egun historiko asko iragarri du datozen asteetarako, euri zaparrada batzuen artean

Eguraldi gorabeheratsuekin hasi da ekaina, baina Euskalmeten arabera, giroak epeltzera eta egonkortzera egingo du eta egun historikoak ugaritu egingo dira Euskal Herrian. “Joan den igandean hasi zen nabaritzen eguraldi-aldaketa, ostarte zabalak eta Gure Esku Dagoren giza-kateak aurtengo egun historiko nagusietako bat ekarri zuten, 20 eta 25 gradu arteko tenperaturaekin. Tendentzia mantendu egingo da Altsa-

suko gazteen aldeko manifestazioraino gutxienez”, Euskalmeten arabera. Datozen hilabeteetarako iragarpene ere aurreratu du euskal meteorologia agentziak: “Ohikoa den moduan, uztailen eta abuztuan gutxitu egiten dira egun historikoak, Super Euskaldunen oporrekin bat eginez; baina irailetik aurrera Bizkaiko Bertsolari Txapelketa dator, beraz, urte amaiera ere oso historikoa izango da mendebaldean”.



Eguraldiari egokitutako parasola berriak jartzen ari dira hondartzetan.

Alberdi EUSKAL
ARTISAUTZA

MAKILA



OPARI BEREZIETARAKO · PERTSONALIZATUAK · PREZIO AUKERA DESBERDINAK

**Makila
tradizionala**
Gaztainondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Alpaka



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Zilar fina



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Alpaka



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Zilar fina



 **ARGIA**

ESKAERAK: azoka.argia.eus | ☎ 943 371 545



Osteguna, **AZOKA** Eguna ARGIA

Ostegun goizero jarriko ditugu eskura
ARGIA Jendearentzat **musutruk** diren eskaintzak. Bixi ibili!
Astero Bizi Baratzeako bi lamina eta askoz gehiago: otorduak, asteburu-pasak...

